



ttiipi-ttapa

TOKIKOM



Juan Carlos UNANUA

Igantzioko
alkate berria

→ 41

2016ko uztailearen 28a | XXXVI. urtea | 667. zenbakia

erran.eus

Herrietako bestak

Bera, Leizta, Sunbilla,
Ziga, Gaztelu, Beintza-Lab.

LESAKA → 38

Haurren errehabilitazioa
eta ureko terapiak ikasiz

ZUBIETA → 45

Auzo konposta bildu eta
banatu dute lehen aldiz

BAZTAN → 54

Herriz herriko itzuliskak
proposatu dituzte

SENPERE → 57

Frantziako Tourrerako
hautagaitza aurkeztu du



ERRALDOIEN TOPAKETA

Beran, uztailearen 31n

Elizondo, Doneztebe, Sunbilla, Etxalar, Igantzi, Lesaka eta Berako konpartsek animatuko dituzte karririk igande eguerdian

→ 37



ARGAZKIA: ONDIKOL

Kantu zaletasuna pizten, berriz ere

Euskal kantu zaharrei buruz kontu kontari jarri ditugu Jaione Olazabal, Pierre Bastres, Amaiurko Gaztelu taldea, Angel Mariezkurrena, eta Joxe Angel Elizalde. Bizipen desberdinak baina sentimendu bakarra: kantu zaharrekiko maitasuna.

ERREPORTAJEA → 3-5



URDAZUBI → 55

Burdinaren Eguna
abuztuaren 6an

Aurten 9. edizioa



Urdax - Urdazubi
Dantxarinea

ABIERTO A TODOS LOS DIAS - GUSTU GAIETETZAKO ERREA - OLIVERT ALK BOTS GOÛTIS
www.urdax-dantxarinea.com

Urdax-Urdazubi Burdin eguna

06/08/2016

10.00 - 14.00

Artisautza azoka
Haurrentzako jokuak

12.00

Burdin mineralez kargatuta datozen idien helduera
Burdina urrezko txanponengatik trukatzeko ekitaldia

13.00

Hitzaldia, Zentro Kulturalean:
"Fueros y Gamazada 1893" Maria del Mar Larraza

14.30

Herri bazkaria "Zikiro jatea" (Mechoui)

16.00

Ekitaldia:
BANKAKO MENDITARRAK

www.urdax-dantxarinea.com

BABESLEAK

Pio XII
Santiago Villares
Venta Peio

Arrechea
Biok
A. Bengochea

Joxemi Bengochea
Rte Indianobaita
Rte La Koska

Nikolaurenea Erretegia
Parque comercial Axular

KULTURA → EUSKAL KANTU ZAHARRAK

Kantatzen duen herriak bizirik dirau

Euskal kantu zaharren inguruan kontu kontari

Buruan gordetzen ditugun hitzak dira. Barruraino heltzen diren doinuak. Herri baten historia bere baitan biltzen duten kantuak. Euskal kantu zaharrek lotura

berezia duten bost herritarrek bildu da TTIPI-TTAPA. Bizipen desberdinak dituzte baina agerian geratu da sentimendu bakarra: kantu zaharrekiko maitasuna.

liki baina, nola bizi dute urtetan euskal kantu zaharren bueltan dabilizanak? Kantu bazkari, ekitaldi eta bertzelakoek bermatzen dute kantu zaharren biziraupena?

tu gara solasean: **Jaione Olazabal** aresoarrarekin, **Pierre Bastres** senperrarekin, **Angel Mariezkurrena** eratsundarrarekin, Amaiurko **Gaztelu taldeko kideekin** eta Orabideko **Joxe Angel Elizalde**arekin.

Eneritz IRAOLA

Laborantzaz, maitasunaz, deserriaz... poz eta minez, mintzo dira euskal kantu zaharrak. Orain dela hamarkada

batzuk arte, egunero-koaren parte ziren; arto zuritzen, soroan, bazkalondo eta ospakizunetan ez zen kanturik falta izaten. Bizi-

modu aldaketak, ordea, kantua zertxobait isilarazi du hainbat urtez. Orain, badirudi berriz ere kanturako ohitura pizten ari dela poliki-po-

KANTUARI LOTURIK

Gaiaren inguruan zeresana duten eskualdeko bost herritarrek ari-

Denen afizio, batzuen ofizio. Kantu zaharrei buruzko hamaika kontu bildu ditugu.

Jaione OLAZABAL | ARESO

«Lehendik datorren ondare horri eutsi egin behar zaio ahal den neurrian»

Zortzi bat urterekin, Leitzako musika eskolan akordeoia ikasten hasi zenean, argi ikusi zuen musika klasikoko piezak baino euskal kantu zaharrak nahiago zituela «etxean neuzkan liburuak eta diskoak hartu eta nire kasara ikasten hasi nintzen. Aitonak eta aitak ere pila bat kantatzen zuten eta haiei adituz gustura egoten nintzen». Urteekin hazten joan zen interesa, afizio bihurtu arte «kanta horrek ze doinu ote du, zein ote da honen letra... etxekoei galdezka aritzen nintzen». Bere guraso eta aiton-amonak erakutsi dizkiote kantuetako asko «trasmisio hori beharrezkoa da. Kantuan entzutea eta kantua bera ere testuinguru batean kokatzea. Askotan entzun dut etxean: *kanta hau artoa zuritzerakoan kantatzen genuen, beste hau aitona zenak kantatzen zuen...* Kanta guztiek bazuten loturaren bat».

TRANSMISIOAREN GARRANTZIA

Trasmisio hori ez badago argi du kantu zaharrak galdu egiten direla «orain berreskuratze lanean ari dira baina ez da ahaztu behar jendea kantuan hasteko antolatutako gauza behar duela izan. Garai batean kantua berez sortzen zen, lanean, pestan... Orain naturaltasun hori galdu da». Antolatutako gauzetatik hasi eta naturaltasun hori berreskuratzeke lan egin behar dela uste du «lehendik datorren ondare horri eutsi egin behar zaio ahal den neurrian». Jaionek bizi egiten ditu kantu zaharrak eta etxeko ttikiei eta bere ikasleei erakustez gain, urtetan aritu da han eta hemen kantuan. Etxetik jendaurrerako pausoa «ia oharkabea» eman zuen «elizan

«Garai batean kantua berez sortzen zen, lanean, pestan... Orain naturaltasun hori galdu da».



ingandetan kantatzen hasi, musika eskolako kontzertuak, lagun batzuen etxean gero, familiako ospakizunetan...». Bilketa lan berezirik egin gabe «gehienbat kanta eta doinu ezagunak hartu eta gaitzen joan diren hitzak berreskuratzea ditut, kantak bere osotasunean landuz». Izan ere, errepikatzen diren kantaren zatiak edo hasierak denok ezagutzen ditugun arren, «osorik gutxi batzuk dakizkigu». Kanta osorik irakurrita, «or-duan ezagutzen duzu kantu horrek berekin duen istorioa, esanahia». Berak abestu duen kantu bazkarietan kantuen letrak banatu izan ditu jendearen artean «eta ikusten da jendeak doinuak ezagutzen dituela eta papera esku-tan badute abesten dutela». Bada batean eta bestean

abestu duen kanta bat ere «Xalbadarren heriotzean kanta ez dakit zenbat aldiz kantatu izango ote dudana. Hileta, bazkaria, jaiotza, ezkontza... egoera guztietarako ongi datorren kantua da».

Etorkizunaz solasean hasita, «kantuen inguruan mugimendua badela ikusten dut. Badago horri eusteko eta mantentzeko gogoia». Berak argi du, «mundu guztiak kantatu beharko luke. Kantuak askorako balio duelako: baloreak, ohiturak... transmititu eta gauzarik zailenak, errazago bihurtzeko».

Gaztelu Taldea | AMAIUR

«Lehen aise gehiago kantatzen zen; ostatuetan, kanpoan, otorduetan...»



Asteazkenetan Amaiurko Gaztelu Elkartera hurbiltzen denak euskal kantu zaharrak adituko ditu txoko guztietatik, bertan dute eta asteroko hitzordua. 1996an sortu zen Gaztelu taldea eta 20 urte daramatzate kantuan «Baztan osoko 11 gizon eta 10 andere gara, 40 eta 70 urte artekoak, euskal kantuak kantatzeko asmoarekin elkartzen garenak».

Talde anitza dira «bakoitza mundu bat gara, bantzuk umetan ikasi dute solfeoa edo musika tresnaren bat jotzen, bertze batzuk elizkan kantatu dute bizi osoan, bertze batzuk

otordu guzietan kantatzeko ohitura dute...». Fernando aritzen da taldeko gidari lanetan, «bakoitzak eskaera egin eta Fernandok zerbait berexia prestatzen duenean ere, kantu hori lantzen aritzen gara». Kantu herrikoiak edo euskal artista ezagunenak kantatzen dituzte «ez dugu partiturarik erabiltzen gehienek solfeoa ez dakigulako. Kantuen hitzak hartu eta bakoitzak gure manierara antziazioak egiten ditugu». Gainera, euskal kantu zaharrak normalean bi ahotsetara abesten diren arren beraiek ez «hiru

ahotsetara abesten digutu guk, hori da gure taldearen berexitasuna». Moldaketa horiek Fernando maixuak egiten ditu «tonua ez da sobera altua izaten, nahiz eta batzuetan gostatzen zaigun ailegatzea edo gorputz barneko haizea mantentzea».

Ezinbertzean kantatu beharreko abesti sorta ere badute «taldea Amaiurkoa izanik *Amaiur*

zintzo eta leiala ereserki bezala daukagu eta ikusleei ere aunitz gusatzten zaizkie *Xalbadorren heriotzean, Jaun Barua, Gaua, Nafarroa Arragoa...*».

Euskal kantuak abesteko afizioa

beti izan dela uste dute «baina azken urtetan nahiko apaldua egon da. Orain berriz, badiudi han eta hemen kantu bazkariak egiten direla eta nahiko jende joaten dela». Horrek ordea, beraien ustez ez du kantu zaharren egoera hobetu «ez baitu erran nahi kanturako ohitura indartu denik. Lehen aise gehiago kantatzen zen; ostatuetan, kanpoan, otorduetan...». Beraiek argi dute ordea kantuan segi nahi dutela urte luzez, «musikak momentu guziz laguntzen dielako pertsoneri. Horrekotz segi dezagun kantuz!».

«Euskaldunak betidanik kantatu du, sentimenduz, bestan pozez eta sufrimenduan negarrez ere bai».

Angel MARIEZKURRENA | ERATSUN

«Kultura, historia eta euskara dira gure oinarriak eta kantu zaharretan biltzen dira hirurak»



ARGAZKIA: D. NOTICIAS

Duela 17 urte, kantu zaharrak biltzen hasi zenean, nekez pentsa zezakeen afizioa ofizio bihurtzera iritsiko zenik «Ulibeltzak elkartean antolatu nuen lehenbiziko kantu bazkaria. 40 lagun inguru espero nituen eta dena bete zen. Ateak ere ireki genituen kanpoan gelditu zen jendeak entzun zezan. Ezin nuen sinetsi». Hari horri heldu eta Euskal Herri osoan kantuare-

kin lotutako hamai-ka ekitaldi antolatu ditu geroztik; Dantxarinea kantu zaharren bazkaria, Iruñea, Donostia eta Bilboko jaialdiak... eta bazkari eta afari aunitz alaitu ditu «ikusgarria da ikus-

tea jendeari zenbat gustatzen zaion kantatzea; asko hunkituta egoten dira. Gainera, geroz eta gazte gehiago hurbiltzen da».

Angelek berak ere, gaztetatik maite ditu kantu zaharrak «aita eta ama askotan aritzen ziren kantuan, anai-arrebak ere bai eta Eratsunen ere kanturako ohitura handia zen». Gogoan du garai bateko giroa: «herriko 50 gaztetik gora mendira joaten ziren lanera, Frantzia eta Italiako mugara batzuk eta Ameriketara besteak. Ameriketara joan zirenak ez ziren bueltatzen baina

besteak bai. Eratsungo festetako bezperatan etortzen zirenean, herri guztia ateratzen ginen plazara eta kantuz hasten ziren denak». Hamasei urte inguru zituen orduan eta gero etorri zen aldaketa «teknologia berriak agertu, gizartea aldatzen joan eta giro hori apaldu egin da, ohitura ia galdu arte». Urte batzuen buruan, berreskuratze lanetan hasi zen «baserriz

baserri ibili nintzen galdezka, aita eta amari entzundakoak ere idatzi nituen eta Sunbillako apaiak ere kantu asko eman zizkidan». Bildutakoa «guztiona den ezagutza» dela

dio eta horregatik kantu zaharren egunetan banatzen dituen liburuxketan jaso ditu kantu zahar horietako aunitz «ezagunak diren kantak, ezezagunak eta berriagoak ere sartzen ditut». Bertso zaharrak dira horietako asko «ez da ahaztu behar bertsolariak izan direla gure historia bertsoan kontatzen hasi eta kantu zaharrei bidea egin dienak». Kantuaren bueltan, kantuz bizi da Angel, eta hala segi nahi du «kantuak jendea bizitu eta kantatzen den bitartean, gure kultura bizirik mantentzea lortzen dugulako».

«Belaunaldi batetik bestera pasatzen zen ezagutza zen: amonak amari eta amak guri. Entzunez ikasten ziren kantak».

Joxe Anjel ELIZALDE | ORABIDEA

«Kantu zaharrak batean eta bertzean joz, jende oso ona ezagutzeko aukera izan dut»



Odolean zeraman Joxe Anjel musikarako afizioa «Aramendiko bordan bost anaiek bazekiten akordeoia jotzen. Nire amatxi bertakoa zen eta hortik datorkidala uste dut». Bertso zaharrek ere betidanik piztu izan dute bere interesa «doinu goxoak dituzte, testuetan ere historiaren zati bat dago, berexiak dira». Akordeoia jotzen Migel Iparragirrek erakutsi zion eta

kantuan berriz, ikasteari ez dio-la utzi aitoritzen du «herriz herri ibilita, lagunarte goxoan ikasi ditut euskal kantu zahar aunitz. Eta oraindik ikasi behar ditudanak!».

«Herriz herri ibilita, lagunarte goxoan ikasi ditut euskal kantu zahar aunitz. Eta oraindik ikasi behar ditudanak!»

Horrekin batera, liburuetara ere jo du aunitzetan «etxean ditut Leitzako Joxe Arraras eta Arraiozko Juan Jose Larnagarai kantuzaleek utzitako liburu eder haiek ere. Mila esker hemendik».

Akordeoia soinean eta kantu zaharrak mingainean, 15 urterekin aritu zen lehenbizikoz jendaurrean «Zugarramurdiko inauterietan izan zen. Ez nintzen urte horretan aunitzez gehiago aterako baina esperientzia ona izan zen. Zeinen ongi zaindu ninduten!». Hasi bazen hasi, dagoeneko «32 urte pasa dira».

Urte hauetan bizi izan dituen bitxikeriak ehunka direla dio «oroitzen naiz aspaldi Anizen gaizki sentitzen hasi eta Jaime eta Pedrok etxera lagundu nindutela, saioa egin gabe. Bertze xelebrekeriak ere aunitz! Baina hobe neretako gordeztea». Urte hauetan guztietan «aunitz laketu dut» dio «eta gainera, jende oso ona ezagutzeko aukera izan dut».

Herrietan jasotzen duenerantzuna ere beti ez da berdina izaten «batzuk ohitura gehiago dute kantarako, bertze batzuk guttiago; baina, orokorrean afizioa badela erranen nuke». Urteetako esperien-

tziak ere laguntzen du kanta aukeratzeko orduan, «nabari-tzen duzu giroa berotuko duen abestia zein den. Toki batzuetan kanta batzuk estimu gehiago dute eta bertze toki batzuetan bertzeek». Jendearen eskaerei ere ezin die beti erantzun «saiatzen zara kanta bat edo bertze ikasten, baina lau abesti ikasi eta bortzgarrena eskatuko dizu jendeak».

Eta ziur gaude, solasterakoan nabari zaion grina ikusita batzerrak alaitzen segiko duela luzaroan; akordeoiaren laguntzaz kantu zaharrak zabalduz.

Pierre BASTRES | SENPERE

«Kantuak bizirik atxikiz, gure istorioak eta gure historia bixkor atxikitzen ditugu»



Iparraldeko adiskide kantuzaleak biltzeko iaz antolatu zuten lehenbizikoz Hiruk'antuz eguna Senperen «uste genuen parada eder bat zitakela ikasteko bertze eskualdeetan kantatuak diren kantuak» azaldu digu Pierre Bastres, antolatzaileetako batek. Hortarako kantu zonbeit probintziak hartatu eta liburutxo bat argitaratu zuten partaide guztien artean banatu zena.

Ekitaldia jendearen gustukoa izan zela dio Pierre «ez ginen gelditu kantatuzetik goizeko hamaika orenetarik gaueko 3 orenetarat!». Arrakasta ikusita, urtero antolatzeko

asmoa dute «baina aldizkan probintzia ezberdin batetan. Heldu den urtean ontsalaz Baxe-Nabarren dateki eta ondokoan beraz Xiberoan».

Ekitaldi berezietatik kanpo, Senperen kantarako usaia badela dio, «hemen hain bizirik egoki da nun edozein paradatan jendeak hartzen baitu!». Kantuak «familietan barna aintzientzat, edo bestetan» ikasi dituzte. Kantuok «zerbait adierazteko idatzia» izan direla dio «orduko bizitzetako gauzetaz mintzo dire, egun guziko gertakariez». Horretaz landa, «erraiten daukute ere

nork duen idatzi, zergaitik edo zertarako. Hori dena ezin dugu galtzerat utzi: kantuak bizirik atxikiz, gure istorioak eta gure historia bixkor atxikitzen ditugu».

Gainera, kantu gehienek hitzak dagoeneko idatziak direnez, «erraz aurkitzen ahal dire». Baina bada zeregina oraindik «batzuek behar litaizke ahantzetik salbatu, hitzen idatzi eta kantu-

tuz ahalik eta gehienetan. Jende batzu ari dire tokiko kantuak bilduz eta argitaratuz. Biba horiek!» Etorkizunaz galdetuta, kantu zaharrak abesteko ohitura «toki bizirik dago, eta

azkarki. Aski da irratien piztea oharrezko aste hondar aunitzetan kantu-zerbait baden nunitz! Bertze toki batzuetan ahalago menturaz baina eskuin eta ezker iduri du kantua berpizten ari dela poliki-poliki». Kantua eskuarengan atarazteko bide atsegina izan litekeela ere uste du «hemen kostaldean geroz eta erdaldu gehiago bertakotzen dire. Aintzientzat eskuarengan duten lehenbiziko harremana da euskal kantua». Kantatzen duen herria ez baita inoiz hilko, «bere hizkuntzaz kantatzen badu bederen».

«Kantuak, liburuak bezala, idatziak izan dira zerbaiten adierazteko; izan dadin aipagai arin edo serio sago».

**Nire txanda**

Jon ABRIL

Sukalderaino

Sukalderaino sartuko genuke autoa, aukera emanen baligute. Aukerarik ematen ez dugutenez, gainerako zoko guztietan uzten dugu. Ikusi, bertzela, nola dauden gure karrikak eta plazak. Haur-garaietan jostetan ibiltzen gineneko leku bakar bat ere ez da libratu autoen inbasiotik. Ez dugu ikusi nahi autoak oinezkoentzako zenbat toki kentzen digun, espazio seguruak ebatsi, arriskuko eremuak handitu. Haurrak eta adinekoak espazio publikotik bota ditugu kotxeei tokia uzteagatik. Oinez ibiltzearen onura sozial (harremanak, solasa...) eta osasungarriak baino nahiago dugu dieselaren keari leku egin. Berriz ere oinezkoek espazioak irabazten dituztenean, gidari aunitz kontra paratzen da, autoarekin sukalderaino joan nahi dutelako. Eta oinezkoen marmarrak baino ozenagoak izaten direnez, beti irabazle! Kezkagarriagoa da oinezkoentzako berreskuratutakoa berriz ere autoei ematea, Berako Herriko Etxeko plazan azken boladan gertatzen den bezala, zer eta hamar auto-gidariren erosotasunagatik. Oinezkoen segurtasunak eta erosotasunak ez du deus balio, ordea.

Ezpala


Aitor AROTZENA

Hizkuntzen arteko berdintasuna

Lanerako eskubide berdinak izan behar omen ditu espainolez bakarrik egiten duen medikuak eta euskaldunak (%100ak espainolez ere bada-ki). Nafarroako bi hizkuntz ofizialeko edozeinetan solastu, ulertu eta idazten duenak, ez al luke bakar-rean moldatzen denak baino aukera gehiago izan behar? Gazteleraz bakarrik egiten duen sendagilea euskaraz ere badakiena baino hobea al da berez?

NabarmentzekoakTomas REKONDO
60 urtez musika bandan

Tomas Rekondo lesakarrak 60 urte eman ditu Musika Bandan eta Sanferminetako hondar egunean, Txakaingo jautsieran jo zituen azken notak klarinetearekin. Txistua ere jotzen du.

Josetxo URRUTIA
Nafarroako txapeldun bitan

Herri kiroletan txapeluzta polita ekarri dute eskualdeko kirolariak Iruñeko Sanferminetatik. Josetxo Urrutiak Nafarroako bi txapel jantzi ditu: harrijasotzen eta ingude altzatzen.

Juan Carlos UNANUA
Igantziako alkate berria

2015eko udal hauteskuntzetan ez zen talderik aurkeztu eta geroztik lehengo udala ari zen jardunean. Orain, kudeaketa batzorde berri bat hasi da lanean eta Unanua da presidente.

Atzera begira → 2006-VII-27 / TTIPI-TTAPA 427 zk.

**Esarte harategiak 75 urte bete zituen Elizondon**

1931. urtean ireki zuten Santiago Esarte eta Anunciacion Muniain senar-emazteek harategia Elizondoko Jaime Urrutia karrikan. 75 urte beranduago, beraien bilobak, Javier Pina Esartek segitzen zuen negozioarekin, duela hamar urteko TTIPI-TTAPAN agertu zenez. Tartean, Javierren gurasoak, Mari Carmen Esarte eta Jose Pina arituak ziren. Jakina, denbora horretan aldaketa handiak izanak ziren: «Hasieran gehien bat behi eta aretxe haragia saltzen zen, baita zeria ere. Gaur egun, aldiz, oilaskoa osorik ere saltzen da, baina bere zatiki guztiak, bu-larkia, hegialak, izterrak... aunitzez gehiago saltzen dira».

Argitaratzailea Ttipi-Ttapa Fundazioa • Egoitza Koskontako bidea, 07-1 • 31770 LESAKA

Tel. (+34) 948 635458 • Faxe (+34) 948 635457 • whatsapp: 744 484361 • info@ttipi.eus



Zuzendaria Aitor Arotzena Erredakzioa Gurutze Pikabea, Eneritz Iraola Publizitatea Usoa Vicente, Amaia Odriozola, Arantza Agirre Berriemaileak Juana Mari Saizar, Ainhoa eta Maider Ansa, Arkaitz Mindegia, Franck Dolosor, Margari Ebeñike, Koro Iratzoki, Nerea Altzuri, Joseba Urrotz, Irune eta Itsaso Elizagoien, Maider Petrirena, Markel Lizasoain, Fermin Etxekolonea, Fernando Etxeberria, Izaskun Goñi, Joana Guerendiain, Martin Bertiz, Nerea Tellebea, Mattin Laralde, Juan Mari Barriola, Joxean Ortega, Iñigo Imaz, Marga Erdozain

Fundazioaren Presidentea Pello Apezetxea Kudeatzailea Joxemanuel Irigoien Administrazioa Amaia Goia

Lege Gordailua NA-1324/85 • ISSN 1578-4673 • Tirada 6.000 ale

Erakunde laguntzaileak Leitza, Goizueta, Arano, Areso, Baztan, Sara eta Senperoko udalak, Zugarramurdiko Akelarre elkart, Malerrekako Zerbitzu Mankomunitatea

2016ko harpidetza sariak

Baztan, Urdazubi eta Malerreka	34€
Leitza	20€
Hego Euskal Herria	40€
Ipar Euskal Herria, Europa	74€
Amerika eta Australia	124€



Bortzietako Euskara Mankomunitateak diruz lagundua

Kolaborazioak

Gure Esku Dago

Esteban IRUSTA MALLEA

Aspaldi honetan, *Gure Esku Dago* mugimendu politikoa martxan dago. Ahaleginak ez dira berriak Euskal Herrian. XIX. mendeko guda Karlistik galdu ondoren, bere Legedia, bere "Foruak" galdu zituen eta horrela, neurri handi batean, bere burujabetza. Frantzia beste hainbeste gertatu zen, 1789ko Iraultzaren ondorioz. Ordutik hona Iparraldeko Euskal Herria maldan behera joan da bere burujabetzari dagokionez. Frantziako Estatu Zentralistarentzat Euskal Herria ez da existitzen, eta euskara ez dago onartua ofizialki. Hego Euskal Herrian ere ez gaude hegan harrotasunez egiteko moduan. Euskal Herriko Foruei buruz oso gutxi hitzegiten da, baina bere denboran munduko agintari eta ospe handiko pertsonaiak gorai-patzen zituzten. Karl Marx (1818-1893) alemaniar filosofo eta ekonomialari ospetsuak hau esan zuen: "Karlismoaren mugimendu libre eta popularrak hobeto defenditzen du herrien eta pertsonen askatasuna Frantziako Iraultzan oinarritutako Liberalismo Ofizialak baino". Jean Jacques Rousseau (1712-1778) frantses filosofo eta idazleak, bere *Du contrat social* liburuan, Gernikako Arbola aipatu zuen askatasunaren ikurra bezala. Ipar Amerikako Konstituzioaren "Aita" izan zen John Adams-ek (1735-1826) Konstituzio berria babes-teko, euskaldunen ongizatea, pake soziala eta askatasuna jarri zituen eredutzat. Hau da, AEBko konstituzioa egiteko, euskaldunen Foruetan inspiratu zen. Prosper Merimée (1803-1870) frantses idazleak bere miresmena adierazten du 1840an, esaldi honetan: "Burgos eta Gasteiz-en artean 400 urteko zibilizazioa tar-tea dago". Ondorioz, ez da harriztekoa euskaldunek Euskal Errepublikak bat osatzeko amets egitea. Lehenengo Karlista Guduan (1835-1839) Zumalakarregirekin asmo hori nahiko zabaldua zegoen. Modu batera edo bestera, euskaldunek beti borrokatu zuten beraien Foruak, bere burujabetza defenditzeko. Guda Karlistik galdu ziren eta ondorioz, kendu ziguten gure burujabetza. Baten batek uste izango du euskaldunek Erregearen alde, Monarkiaren alde borrokatu zutela, baina beraien benetako helburua beraien Legeen birtatez Euskal Herriaren askatasuna defenditzea zen. Harrezkero Francoren Guda Zibila (1936-1939) izan zen, eta Bizkaiak eta Gipuzkoak (ez Nafarroak eta Arabak) galdu zuten "Kontzertu Ekonomikoa". Hemengo diru guztiak Madrilerako bidea hartzen zuten. Gero, Franco hil ondoren etorri zen "demokrazia". Egoera ekonomikoa, soziala,.. hobetu da, baina egoera politikoa, burujabetzari dagokionez, oso urruti gaude Foruen denborekin alderatuz. Gure askatasunaren egorria ez da ase, eta ez da asetuko benetako burujabetza lortu arte. Urte luze hauetan Espainiaren aldeko komunikabideek lan sakona egin dute eta egiten ari dira jende askoren pentsakeran. Gure Esku Dago moduko mugimendu ugari beharko dira euskal kontzientzia berpizteko eta gutxienez "Foruek" suposatzen zuten eskubideak berreskuratzeko.

Lesaka, bere hizkuntza

Mikel RODRIGUEZ LANDA

Segur aski, ezagutzen den lehenbiziko idazle lesakarra izanen da Joseph Mikelestorena apaiza. 200 urte ongi pasatuak dira bere lana idatzi zutenetik: *Cerura nai duenac ar dezaquean vide erraza*. XVIII. mendean bizi izan zen Mikelestorena eta herriko hizkuntzan idatzi zuen. Lesaka ez ezik, Nafarroa gehiena euskalduna zen orduan, baina bertako hizkuntzak ez zuten inongo errekonozimendu ofizialik. Herritar gehienak analfabetoak ziren, ez zitzaion euskaraz idazten eta irakurtzen irakasten, eta ez zuten kanpoko bertze hizkuntza hura ikasten. Hala ere, euskaraz irakurtzen zuenik bazegoen, bertze Mikelestorenaren liburuak alferrik izanen baitzituzkeen bortz edizio. Aita Manuel Larramendi andoaindarrarekin harremana zuen Mikelestorenak, eta Joxemiel Bidadorrek bere artikuluetan bildu zuenez, Larramendik Mikelestorenaren euskara gorai-patu zuen. Euskararen apologista deitu izan zaio Larramendiri, gure hizkuntza bazterketa eta desprestigio ikaragarrikoa sufritzen hasi zen garaian, bertze edozein hizkuntzaren balioa zuela sutuki defendatu baitzuen. Mikelestorena eta Larramendi hil zirenetik 200 urte baino gehiagora, euskara ofiziala da Lesakan, eta haurrak euskaraz alfabetatzen dira. Baina, gezurra iduri badu ere, Lesakan beti herritarren sektore bat bertako hizkuntzaren kontra egon da; norbere hizkuntzaren kontra. Horren adibide gordinena iazko azaroan bizitu genuen, alderdi abertzale batek, euskaltzalea dela dioen koalizio baten barrenean, Lesakan euskara normalizatzeko plana kendu zuelako, alternatibarik eman gabe. "Baserritik herrira jaitsi, eta euskaraz aritzeagatik irri egiten ziguten; eta irri egiten ziguten horien seme-alabek eta ilobek orain bertze diktadura bat jarri nahi dute, baina bertze aldera egiteko, berriz ere errateko nola mintzatu", erran zuen alkateak pleno penagarri harretan. Euskaldunen kontra egindako injustiziak erabili zituen justifikatzeko euskara dagoen tokian utzi behar dela, eta gaztelaniak segitu behar duela nagusi izaten. Aita Larramendik duela 200 urte baino gehiago kontra egin zien sinplekeria horiei, baina batzuek kasu egin gabe segitzen dute. Lesakarrari bere herrian zerbitzu publiko guztiak bere hizkuntzan emateko eskatzea inposizioa da. Total, denok dakigu gaztelaniaz, ezta? Lesakan 45 urte baino gazteagoak diren gehien-gehienak daude euskaraz alfabetatuak. Hortik goiti, gehien-gehienek ez dute arazorik ulertzeko, nahiz eta maiz aitzakiak paratu. Noiz arte segitu behar dugu Francoren garaiko konplejo kutre horiekin bizitzen, ezin aitzinera egin? *Vaya Semanita*ko azentu erridikuluekin mintzaten den herri bat izan nahi al dugu, edo bere hizkuntzan normal bizi den bat? "Hemen bizi behar baduzu, euskara ikasi behar duzu". Lesakara Brasildik etorritako herritar batek erran zion hori Berria egunkariari joan den ekainean. Atlantikoaren bertze aldetik etorritakoak hori uler dezake, eta bertako baserrian jaiotakoak ez? Mikelestorena apaiza hemen balego, bat baino gehiago zerura ez, infernura zigortuko luke.

Irakurleak mintzo

Bi lagun

Xanti BEGIRISTAIN
MADOTZ (Itzulpena)

Istorio batek kontatzen du, bi lagun basamortuan barna zihoa-zela oinez, neska eta mutila. Bidaiaren lekuren batean eztabaidan hasi ziren, eta bietako batek zaplazteko bat eman zion besteari. Min-duta, baina besteari deus ere esan gabe, desertuko hondarrean zera idatzi zuen: "Nire lagunik hoberenak gaur belarrendoko bat eman dit".

Oinez jarraitu zuten oasi bat topatu zuten arte, eta han bainatzea erabaki zuten. Lehen, matrailekoa hartutako neskatxa itotzen hasi zen, baina bere lagunak salbatu zuen. Indarberitu ondoren, neskatxak zera idatzi zuen harri batean: "Nire lagunik hoberenak gaur bizia salbatu dit".

Neskatxa jo eta salbatu zuen mutilak, honako hauxe galdetu zion bere lagunik hoberenari:

-Min eman dinadanean hondarrean idatzi dun, eta orain, ordea, harri batean. Zergatik?

Neskatxak erantzun zion:

-Norbaitek min ematen digunean, hondarrean idatzi behar diagu, barkamenaren hai-zeek ezabatu ahal dezaten. Baina norbaitek guretzat zerbait on egiten duenean, harriari grabatu behar diagu, inongo haizerik ezabatu ez dezan.

"Ikas ezazu zerorren zauriak hondarrean



Bota bertsoa

Aitor AROTZENA ALBITZU (Lesaka) • Doinua: Beroiarena
Baztan-Bidasoko XXIX. Bertsopaper lehiaketan 2. saria (18 urtetik goiti)

Behobia-Donostiako nobatoa

- | | | | |
|--|---|--|---|
| <p>1. Goizeko zortzietan oraindik logale erna nadin bilduak milaka zale jarraitzailez beteak bide eta kale indarrez hornitzeko animo emale, frantsak: <i>Allez, allez!</i> Bertze batzuk: <i>dale!</i> Hainbat begirale: <i>Bale haiz hi bale!</i> halakoetan ezin da egin kale. (bis)</p> | <p>4. Korrikalari denok daukagun asmoa Behobia-Donosti lotzera noa abiatuta gaude atleta mordoa martxan jarria daukat prest pultsometroa! goitiraino doa idorra ahoa betea hauspoa zainetan lepoa ta oraindik ez dut egin kilometroa. (bis)</p> | <p>7. Aurreen doazenak hirutikan hiru ikatza bezain beltzak heldu zaizkigu hanka arin-arinak gerone testigu atzean uzten dute lehoi, putre, miru; Afrikako tribu denak datozkigu baina horrek berdin du guri (badakigu) dortokak ere aurre hartuko digu! (bis)</p> | <p>10. Errenteri-Pasaia utzita atzean Easo ederrera ailegatzean Utzi edo ez utzi bidegurutzean, dena ikusten baitut ai zuri-beltzean! Jesus gurutzean oinazez trantzean malda igotzean helmuga hantxe han! hau gurutzebidea Mirakrutzean! (bis)</p> |
| <p>2. Hogeita hiru milatik bada zenbait izar gehixeago direla azaldu behar lehen lerroan jarri dira zakar-zakar irri egiten dute bertze denen bizkar hezur, azal, gihar lepo ondo ihar hanka-flako mehar bideetan zehar holakoa ez al naiz izanen bihar! (bis)</p> | <p>5. Bertze hemeretzikin izanen da meta baina dagoeneko nago erreta arnasa sakon hartu jarriaz arreta falta den biderako kemena gordeta sasoiz hago eta! Indarrez beteta! hi haiz hi atleta! Ostia! Puñeta! Aurreen ikusi dut Gaintxurizketa. (bis)</p> | <p>8. Abixatu zidaten: <i>hau ez da kalaka, ez zaitez hasi behinpin azkar presaka berrehun pultsazio ederki pasata, bide erdian nator birao-esaka ttirriki-ttarraka minduta aldaka dena da aldapa barrenak botaka arrakasta nahi eta ni arrastaka. (bis)</i></p> | <p>11. Bozgorailuetatik erraten dutenez irabazle izan da Txema Martinez nik beste ordu erdi beharko dut errezt mantso aurrera noa ez dut etsiko, ez! Baldar eta minez izerditan, nekez, helmugara pozez iritsi naizenez: <i>hurrengoan bueltatu? Seguru baietz!</i></p> |
| <p>3. Bertze puntan daukagu xelebreen txanda korrika egitea euren parranda nahiz eta ez datozen ardo edanda hark Heidin mozorroa, honek propaganda; leopardo tanga, burun eramanda El Faryn bufanda... a ze friki banda! zirkorik handiena Behobian da! (bis)</p> | <p>6. Nolabaite kaxkora ailegatu gera mingaina ahotikan doa lurrera ondokoak dionez orain gainbehera ikusleen oihauek: <i>Aupa! Eutsi! Benga!</i> Pankarta, bandera gogorra karrera oraindik luze da hau nere aukera: <i>hurrengoan etorri? Keba! Bai zera!</i> (bis)</p> | <p>9. Abituallamiento eremua-dala jan-edariak, fruta eta itzala aurrera segitzeko dudak azken bala hartzen dut desertuko ur tanta bezala; nere eginahala lagundu dezala, baina berehala, hustu da apala, bakarrik gelditzen da laranjazala. (bis)</p> | <p>12. Agujetarentzako bikarbonatoa errekupeartzeko karbohidratoa lo egiteko hartu Nolotil potoa ederki somatu da ni naiz nobatoa; ez da oztopoa horra hor retoa dut prestatzekoa datorrenekoa bizkorra ez naiz baina aski terkoa. (bis)</p> |

idazten eta zorioneko kontuak harriari zizelkatzen".

Esaten dute minutu bat kostatzen dela pertsona berezi bat aurki-

tzea, ordubete estimatzea, egunbete maitezatea, baina bitzta oso

bat ahaztea. "Har eza-zu denbora bizi izateko".

IRAKURLEAK MINTZO Orrialde honetan ahalik eta gutun gehien kabitze aldera, ez da komeni 1.900 karaktere edo 24 lerro baino gehiagoko gutunak bidaltzea. TTIPI-TTAPAK eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunarekin batera bidali beharko dira datu hauek: egilearen izen-deiturak, herria eta harremanetarako telefonoa. Egilearen izen eta abizenarekin argitaratuko dira gutunak.

e-Posta:

info@ttipi.eus

Posta: **Koskontako bidea, 07-1, 31770 LESAKA**

Tel.: **948 63 54 58**

Faxa: **948 63 54 57**

Prentsatik bildutakoak



«Hasieratik urte zaila da guretzat. Kirol profesionalean ez duzu inoiz bizpahiru urte baino luzeagoa den kontraturik izaten eta horretara ohituak gaude. Gure mundu txikia da eta lanean serio aritzen bazara, ez duzu aukera faltarik izanen. Baina datorren urtean non lan egin behar duzun ez jakitea ez da bate-
re xamurra, batez ere laguntzaileentzat»

Patxi VILA
Tinkoff taldeko zuzendaria
GARA 2016.07.16



«Azken urteotan, jende kopuru aldetik egonkortu egin da [Baztandarren Biltzarra]. Trantsizioko urteetan euskal izate-aren, euskal kulturaren adierazpide argia zen, errepresio tes-
tuinguru nabari batean, eta horrek bazuen osagai berezi bat. Garai bakoitzean besta hau beti besta bera izanik jendeak modu desberdin batean bizi izan du».

Joseba OTONDO
Baztango alkatea
BERRIA 2016.07.17

11 galdera labur

Nola aurkeztuko zenuke zure burua?

Sunbillako berriak emanez gozatzeko duen sunbildarra.

Zein afizio dituzu?

Argazkiak ateratzea, abesbatzan kantatu eta txistua jotzea.

Duela zenbat urte hasi zinen berriemaile lanetan?

Ez naiz oroitzen zenbat urte daramatzadan. Aurreko berriemaileari aunitz laguntzen nion eta horregatik egin zidaten Ttipi-Ttapa-koek proposamena.

Herrian gertatzen den guztia izanen duzu kontrolpean...

Saiatzen naiz guztiaren berri ematen baina beti izaten dut zerbaitetik ihes egin didanaren sentsazioa. Horregatik, zerbaiten berri eman nahi duena jar dadila nirekin harremanetan!

Argazkirik ere ez da falta izaten Sunbillako orrian...

la gehienetan bete-betea egoten da eta niretzat hori pozgarria da. Nire ustez argazki betetako orria irakurlearentzat erakargarriagoa izaten da.

Zein argazki aterako zenuke gurtura?

Argazki konkretu bat baino, ateratzen ditudan ongi ateratzea, oroitzen dituzten politikak izateko.

Asteburuko planik ederrena?

Familiarekin aprobetxatzea edozein plan eginez.

Zein da Sunbillako besten berezitasuna?

Sunbildarra naizenez, bestak bere osotasunean dira niretzat bereziak.

Gau edo eguna nahiago?

Orain ama naizenez eguneko giroa nahiago dut, alabekin egunez disfrutatu eta gauetz lo, nahiz eta besta bezperan besta ederra egiten dudana.

Zer behar duzu zoriontsu izateko?

Lana eta osasuna izanez gero, ez dut besterik behar.

Amets bat?

Familia osasunez ongi egotea eta beraietaz disfrutatu ahal izatea.



Maider PETRIRENA → Sunbillako berriemailea

1951tik
Casa Cambra
lentzeria-etxea

Udako merkealdia

edredoi fundak · albornoak · edredoi nordikoak · ohe estalkiak · maindireak · mantelak · kuxinak · toailak

Tafalla, 13 · IRUÑA · 948-230 634



**BESTA
ZORIONTSUAK
OPA
DIZKIZUEGU!**

BIOK

www.ventabiok.com

DANTXARINEA

Dantxarinea,31
31712 Dantxarinea
NAVARRA

T 0034 948 599 093

Landibar, 5
31712 Dantxarinea
NAVARRA

T 0034 848 478 879

VALCARLOS

Barrio de Ventas, s/n
31660 Valcarlos
NAVARRA

T 0034 948 790 179

IBARDIN

Alto de Ibardin, 28
31780 Bera
NAVARRA

T 0034 948 630 707

Alto de Ibardin, 37
31780 Bera
NAVARRA

T 0034 948 630 717

EGITARAUA

ABUZTUAK 2, asteartea

12:00 Herriko etxetik altxaferoa botako da eta ezkil-jotzea izanen da. Aldi berean, tikiendako goxokiak eskainiko dira. **Ondotik** Erraldoi eta buruhandiak karrikaz karrika ibiliko dira, Incansables Txarangak eta Ezpelur Gaiteroek lagunduta. **18:30** Kukaña Illekuetan, Incansables Txarangak alaituta. **19:00** Berako txistularien kalejira, Illekuetatik Herriko plazara. **19:00** Berako txosnen irekiera. **19:30** Kontzertua Altzateko plazan Kolpatu taldearekin. **20:00** Dantza jaialdia Eztegarra pilotalekuan. **00:00** Kontzertua Altzateko plazan Tumatxak taldearekin. **Egun osoan** Incansables txaranga.



ABUZTUAK 3, asteazkena

09:00 Herriko txistulariek argi-soinua joko dute; Ezpelur gaiteroek herrian barrena joko dute. **10:30** Udalbatza, txistulariak, makil dantzariak eta Berako bandera aitzinean dutela, Herriko Etxetik San Esteban elizara abiatuko dira, Esteban Donearen ohoretan eta Berako abesbatzak lagundurik emanen den meza nagusira. **Meza ondotik**, Gure Txokoa dantza taldeko kideek Berako Makildantzak eta Bordondantza dantzatuko dute txistularien laguntzaz. **Gero**, Julio Soto eta Nerea Ibarzabal bertsolariak kantatuko dute. **13:00** Ezpelur gaiteroak Ibardinen ibiliko dira. **18:00** Gure Txokoa dantza taldeak Berako aureskua dantzatuko du Herriko Etxeko plazan txistularien laguntzaz. **Gero**, Berako bandaren kontzertua Herriko Etxeko plazan. **21:00** Dantza herrikoiak Altzateko karrikan Ezpelur gaiteroen laguntzarekin. **23:00** Suaparta ikuskizuna Herriko etxea plazan: txalaparta eta sua Paxkal Indo eta Paxkalin Chabagnoren eskutik. **00:00** Dantzaldia Altzateko plazan Saltoka Taldearekin. **Egun osoan** Incansables txaranga.



Kotoi
Kortinak
Estoreak
Etxerako
ehungintza
osagarriak

Bidasoa karrika 14 · 31780 Bera · T. / F. 948 631 660
ongi pasa bestak!

F. LANCHAS
Akutxiladorea eta bernizatzailea
Parket eta parket flotatzailea
jartzea
Mota guztietako zolak

Tel: 948 630 735 M: 607 406 781

ORDOKI
GIZONEZKO ILEPAINDEGIA
ONGI PASA BESTAK!

T. 637 40 83 20 · Kanttonberri, 4 · BERA

Pizzio
tabako-denda 2. zbk
ongi pasa bestak!

Altzate, 26 · Tel. 948 630 788 · 31780 Bera

Kalash JOYEROS

MORELLATO

Kanttonberri, 6 BERA | 948 630 751
Merkatarien Karrika, 7 DONEZTEBE | 948 451 519

FONTANERIA
ongi pasa bestak!

Carlos
Carlos Pacheco

C/Legua nº 19
31780 BERA (Navarra)
Telefono: 637 15 11 70

Goieko *DESINERA*
INDUSTRIA GARBITASUNERAKO SISTEMA ETA PRODUKTUOK
DESINFEKZIOAK · DESINSEKTAZIOAK · DESARRATOITZEAK
Zure inguru klase guzietako insektuz (xomorro, zinourre, armiarmo, kukuxu...) eta arratoi xagutzoz garbitu nahi baduzu deituz Termita eta Pipien tratamenduak
T. 948 625 597 · Zalain, 42 B · BERA

Ituzia
KIMAKETA BEREZIAK
HIDROEREINTZA
kimaketak
zerrakurak
mantenimendua
...
FERMIN MARITORENA LARRALDE
Hegoalde karrika, 33 666 407 214
31780 BERA (Nafarroa) 948 631 199

xarma
ESTETIKA
Ongi pasa bestak!
xarmaestetika@hotmail.com
T. 948 630 904
Altzate, 33 behea
31 780 BERA

ONGI PASA BESTAK!
BIANDITZ
NEKAZARIEN ETXEA
etxerako behar dituzun guztia
PENTSUAK · FORRAJEAK · LANDAREAK · ABONOAK · PLASTIKOAK
FITOSANITARIOAK · PATATA HAZIAK · BOLOEN PLASTIKOAK
BASERRIRAKO TRESNERIA... etkez etxeko zerbitzua
Zalain ind. 5 · BERA | T. 600 977 339 | bianditzpentsuak@gmail.com

ONGI PASA BESTAK!
ITURRIONDO
ZURGINDEGIA
ZURGIN LANAK OROKORREAN
T./F. 948 631 430 · M. 607 890 923 · 607 890 966
Zalain ind. 7 · BERA

GORA SAN ESTEBAN!
bortziri
IMPRESA - HOPISTEGIA
948 631 521
material guztietan inprimatzen dugu
hamisetak / oparitzeho artikulua

MEKANIZATUAK
ongi pasa bestak!
Zalain Ind., 9 · BERA
T./F. 948 63 11 67

ALLURI
ETXERAKO EDERTASUNA
ASTONDOA
DROGERIA
MENAJE DENDA
ESPEZIALIZATUA
Ongi pasa bestak!
948 625 442
San Esteban 17 · BERA

SUKALDEKO ALTZARIAK
ARMAIRU ENPOTRATUAK
KOLTXOIAK - ETXETRESNAK
Erakusketa Bereau etxean
BORTZIRI
UNSION ANAIAK
Ongi pasa bestak!
Erakusketa: Bereau Etxea LESAKA Nafarroa
T. 948637266 M. 607226891
bortzirialtzari@telefonica.net

HAMAIKETAKO ERAMATEKO JANARIA
ETXERA ERAMATEKO MENU OSOA 7etik HASITA
948 631 017
ONGI PASA BESTAK!
Sara karrika, 7 · Agerra auzoa · BERA

GANIX
Tailerra
FIAT zerbitzua
ONGI PASA BESTAK!
Iturlandeta, 6 BERA
948 63 06 69

Besta zoriontsuak, opa dizkizuegu
Hotel Churrut
HOTEL ***
CHURRUT JATETXEA (LENKONEA)
BERAKO BESTETAKO DASTATZEKO MENUA
BIDASOA ENTSALADA (ganboiak, txipiroiak eta shii-take onddoa).
SAN MARTIN BOLOBANA (mariskozkoa), tipulin eta perrexil-emultsioarekin.
KUKAÑA LEGATZA, baratxuri fresko-saltsa finarekin eta barazki-brotxetarekin.
SAN ESTEBAN ARATXE-MASAILEZKO HOSTOPILA, ardo beltzaren erreduzioa eta sagar-purezko habiarekin.
CHURRUT TARTA ZITRIKOA, almendrazko etxeko teila eta mugurdi-sorbetea.
ARDOAK, KAFAA ETA BEZ BARNE.
PREZIOA: 32,00€
T. 948 625 540 · 948 625 542
Foruen plaza · 31780BERA
www.hotelchurrut.com

Jorge Sopena Colomera
ODONTOLOGOA
Colegiado 223
Itzea, 1 -1º 31780 BERA
T. 948 63 06 47
ongi pasa bestak!

ONGI PASA BESTAK!
HIRUKIDE
Eguzki panelak ◀ ▶ Iurgintza
Industria mantenimendua ◀
Aire egokitua ◀
T./F. 948 625 395
Alkaiaga ind. · Alasta, 4-6 Behea · 31770 LESAKA

ONGI PASA BESTAK
elika
Dietetika eta elikadura
IXIAR ANDUEZA LANZ
Dietista-Nutrizionista
Kolegiatu zenbakia NA221
Itzea, 6 behea 31780 BERA
T. 948 631 283 · 645 708 512
e. elikabera@hotmail.com

ABUZTUAK 4, ortzeguna

09:00 Ezpelur gaiteroak Dornakun ibiliko dira, eta Bera kantari Zalain auzoan. **11:30** Berako igerilekuan haur eta gazteentzat XIX. Igeriketa Txapelketa. **12:00** Danborrada Herriko Etxeko plazatik Altzateko plazara. **13:00** Kukaña Illekuetan. **14:00** Bertso bazkaria: Onintza Enbeita, Uxue Alberdi eta Miren Amurizarekin. **18:00** Pilotari profesionalen arteko partidak Eztegarra pilotalekuan. Aspeko pilotariak ariko dira. Sarrerak Puri-enean eta Zalainen daude salgai 25 eurotan. **18:00** Hor konpon Marianon! 3-8 urte bitarteko haurrentzako ikuskizuna, Altzateko pilotalekuan. **18:00** Cumbiam'bero txarangarekin kalejira-poteoa. **19:30** Cumbiam'bero taldearen kontzertua Altzateko plazan. **21:00** Dantza herrikoiak Ezpelur gaiteroekin Altzateko karrikan. **00:00** Dj Tirri & Tery Altzateko plazan. **Egun osoan zehar** Incansables txaranga karrikaz.



ABUZTUAK 5, ortziralea

09:00 Musika eskolako trikitilariak eta panderojoleak Suspelan ariko dira eta Ezpelur gaiteroak Kaule auzoan. **10:00** Plater tiroketa, ehiza ibilaldia modalitatean. Beratarrentzat. **Ondotik** gosaria banatuko da. **10:30** Herriko pilotarien pilota partidak: Benjaminak, alebinak, infantilak eta helduak. **12:30** Kantxa 2016 txapelketa Eztegarra pilotalekuan. **12:30** Erraldoi eta buruhaundiak Ezpelur gaiteroekin batera ibiliko dira Agerran. **13:00** Kukaña Illekuetan. **14:00** Kantu bazkaria Altzateko pilotalekuan. Sarrerak: Agara prentsak eta Labezarren uztaillaren 28ra arte. **18:00** Kukaña, Illekuetan. **19:00** Migattuak Herriko Etxea plazan. **19:30** Berbena Alaiki taldearekin Altzateko plazan. **21:00** Hautsontzi&Zerbeza zuzeneko irrati saioa txosnagunetik. **21:00** Dantza herrikoiak Ezpelur gaiteroekin Altzateko karrikan. **Ondotik** Suzko zezena aterako da Altzateko karrikan. **00:00** Alaiki taldearen kontzertua Altzateko plazan. **Egun osoan** Incansables txaranga karrikaz karrika ibiliko da.

SMAZIZOR edariak

T./F. 948 631 557
Helbidea: Ziobi, 3 ALKAIAGA
eposta: maziziorsenper@gmail.com

EDARIEN
eta
JANARIEN
SALMENTA
eta
BANAKETA

Itsasoa hurbilagol!

amaleun
ARRAINDEGIA

948 630 981 • 620 828 757 • Itzea, 6 • BERA

CARROCERIAS
ALZATE

TXAPA eta PINTURA

Alkaiaga ind. Alasta, 4 • Tel: 948 630 373 • BERA

ONGI PASA BESTAK!

ARIN
Allianz ASEGURUAK

Eztegara, 26 • BERA • T 948 625 259 • F 948 625 264
Parrokia, 21 • DONEZTEBE • T 948 450 266 • F 948 450 617

BERA

KATEA BIKE

BIZIKLETEN
SALMENTA
ETA
KONPONKETA.

Eta orain,
**GIMNASTIKA
ETA FITNESS
MAKINAK,**
bizikleta estatikoak
lasterketako zintak
...

948 631 218
Kanttonberri 1, BERA

katebera@telefonica.net

MAS ORBEA MERIDA SCOTT BH



BESTA ZORIONTSUAK OPA DIZKIZUEGU!

IDOIA LURRINDEGIAK
IBARDIN · DANTXARINEA · VALCARLOS



ABUZTUAK 6, larunbata

09:00 Musika eskolako biolinak eta Ezpelur gaiteroak Garaitarreta eta Suspeltiki auzoetan ibiliko dira. **10:00-14:00** Puzgarriak Eztegara pilotalekuan. **12:00** Erraldoiak eta buruhaundiak Altzatetik Herriko Etxera, Ezpelur gaiteroek lagunduta. Agurra erraldoi eta buruhaundiei. **14:30** Herri bazkaria paella jatea Herriko Etxeko plazan. Eguraldi txarra eginez gero Altzateko pilotalekuan. Sarrerak salgai abuztuaren 1era arte Xuga eta Errekalde ostatueta. **18:00** Magiklown haurrentzako ikuskizuna Altzateko pilotalekuan. **18:00** Kukaña Illeketan. **19:00** Etxera! Elkartasun kalejira Mukixutik Altzateko plazara. **19:30** Balerdi Balerdi taldearen kontzertua. **21:00** Dantza herrikoiak Ezpelur gaiteroekin Altzateko karrikan. **Ondotik** Suzko zezena aterako da Altzateko karrikan. **23:00** Jou Jou Dou eta Tiktara taldeen kontzertua Altzateko plazan. **Egun osoan zehar** Incansables txaranga karrikaz karrika ibiliko da.



ESKAINZA BEREZIAK!

Ikastaro teorikoa
nahiz praktikoa
euskaraz!

- INFORMATU ZAITEZ -

Eztegara pasealekua, 26 BERA T. 948 630 298	Plaza Berria, 7 LESAKA T. 948 638 299
---	---

e-posta: semperautoeskola@gmail.com
ongi pasa bestak!

VENTA GORA

OSTATUA - JATETXEA
Menu | Karta
KAFETEGIA · OROIGARRIAK
AUTOZERBITZUA
Besta zoriontsuak igaro!

Ibardingo gaina | BERA
Tel.: 0034 948630729

**Legia, 21
BERA**

**ONGI PASA
BESTAK!**

Albaitaritza Klinika

Txertoak · Analiak · Kirurgia
Pentsuak eta osagarriak
Zakurrendako ileapaindegia

Ordutegia:
11:00 - 13:00 / 17:00 - 20:00
Larunbatetan:
09:30 - 13:00

Tfnoa:
948 631 362 · 669 877 943

LIXOIA
OSTATU - JATETXEA

ONGI PASA BESTAK

Itzea, 2 - 31780 BERA - 948 631 271

PRIM, c.b.
Bizkortze Zentroa

- Kirol Fisioterapia
- Osteopatia
- Masajeak
- Trafiko istripuetan aholkularitza
- Istripu eta osasun aseguruak
- Presoterapia
- METODO BERRIA:
- Umeentzako arnas fisioterapia

Itzea 1, behea • Tel-Fax: 948 625206 • BERA
Colon Pas. 6 - atzea • Tel-Fax: 943 633050 • IRUN



*Importazioko
bakailu, gazitua,
gezatua eta kongelatua*

Gora San Esteban!



Alkaiaga Ind. • Lesaka • T. 948 631 536 • F. 948 631 550

arropa-denda | etxeko osagarriak | lenteria

Arturo

Ongi pasa bestak!

Altzate, 30 31780 BERA T. 948 630 136

BAZAR FELI (The Cotte)

Kantonberri, 5 | BERA | T. 948 625 285



- GOZOKIAK
- IZOZKIAK
- BITXIAK
- ARROPA
- ETXERAKO TRESNERIA
- BURDINDEGIA
- ESKOLAKO MATERIALA
- JOSTAILUAK
- GARBIKETA
- PRODUKTUAK

Ongi pasa bestak!



Aitzinaldeak, angeluak, parea aitzinekoak
leihoak, atekak, arkuak, pilareak,
tximiniak, erlaizak, moldurak
zokaloak, hilarriak, marrazkiak

ongi pasa bestak!

Tel. 948 631 317 • Faxe. 948 631 587
Irungo errep. BERA
www.antzuzelai.com • info@antzuzelai.com



ML

ONGI PASA BESTAK

*Ile-apaindegia
Estetika*

- EMAKUMEENTZAKO ILE-APAINDEGIA, ESTETIKA ETA SOLARIUM
- GIZONEZKOENTZAKO ILE-APAINDEGIA ETA BIZARTEGIA

Iturlandeta, 4 | 31780 BERA | T. 948 630 483



B E R A

Berako udalak
besta zoriontsuak
opa dizkizue

GORA BERAKO BESTAK!



Andrea GOURAUD | Berako gaztea

«Jende helduarentzako edo baserri ingurukoentzat zerbait falta da bestetan»

«Geldirik egoten ez dakien neska bat naiz, denetarik probatu behar duena. Denbora luzez gauza berdinak egiten aspertu egiten naiz». Honela aurkeztu digu Andrea Gouraudek bere burua. Bere ekintzak dira horren lekuko, 28 urterekin, gauza aunitz probatutakoa baita: «maratoi erdieten ibili naiz, orain bizikletan, balleta egin dut, dantza, pintura...». Baina denaren gainetik argi du «mendia sakratua» dela beretzat, eta hala, «egunero, lanera etorri baino lehen, zakurrekin mendira joaten naiz». Kirolaz gain, zakurrak dira bere bertze pasio haundietako bat: «aunitz maite ditut». Eta kalekumea izanagatik baserria ere atsegin du: «baserri zahar bat errentan hartzeko aukera izan genuenean, harat joan ginen orain hamaika urte, eta han segitzen dugu». Azaldu digunez, «baserri batean sei hilabetez segidan ikasten aritu nintzen. Behi bat banuen, baina ez nuen ez astirik eta ez dirurik ere. Orain bi ditugu eta sei behira arteko topea jarri dugu». Lana dela onartu digu, baina «gustatzen zaigu», dio: «baserrian ez dago igandetik, baina bertze lasaitasun bat da». Hala ere, ihesaldiak egitea gustuko du: «urtero hiru aste hartzen ditut atzerria joateko, mendira normalean». Kolonbia, Nepal, Costa Rica, Peru... bisitatuak ditu eta aurtent Indiara joan nahi du.



Andrea Gouraud (eskuinean) Nerea Fagoagarekin. Elkarrekin Berako bestetako egitarauaren azal lehiaketa irabazi dute.

tako blusa, laugarrenean emakumeen aureskuko soinekoa eta bosgarrenean udaletzeko arkupeak». Lehiaketa hau irabazi duten lehenbiziko aldia bada ere, lehen ere aurkeztu izan da Andrea: «Beran hirugarren urtea dut eta Nerea eta biok egin dugun lehenbiziko urtea da». Bertzalde, aitzineko agintaldian kultur zinegotzi izan zen Andrea, eta «bestak ongi ateratzeko kontrolatzen» pasatu omen zituen. Aurtent, berriz, lasaiagoak izatea espero du: «zinegotzia izanda, bestak aunitz aldatzen dira, kanpotik dena aisa ikusten da, baina ez da xamurra izaten». Bestetatik «txupinazo eguneko goiza» du gustukoena: «lehenago kuadrillako bazkaria egiten genuen. Orain aunitz kanpoan daude eta zaila izandu da elkartzea, baina egunik politena hori da. Asteburuan ez da herriko giroa izaten, frantses sobera izaten da...». Gainerakoan, bakillak ere maite ditu eta erran digu, baina dantza saioa ez. Eta bestek zerbait falta dutela ere adierazi digu: «jende helduarentzako edo baserri inguruko jendearentzat zerbait falta da».

AZAL LEHIAKETAN IRABAZLE

Berako bestetako egitarauaren azal lehiaketa irabazi du aurtent Andreak, Nerea Fagoagarekin batera. Arte Ederrak ikasi zituen Andreak eta Nereak diseinua: «bien artean moldatzen gara», aipatu digu. Azalean «denentzako zerbait» egiten saiatu direla kontatu digu, «ez genuelako ekintza bakarra azaltzea nahi»: «bortz erreldo ditu azalak, bestetan garrantzia duten bortz ekintza desberdin ageri dira. Goian, haurrek horrenbertze erabiltzen duten kukaña ageri da, gero gizonezko dantzarien hanketako zintzarriak, hirugarren erreldoan beste-



ONGI PASA BESTAK!

 **ION DOZAGARAT GIL**

Igeltseritza orokorra
Itzea, 5 • BERA • 689 046 720

ERREKALDE

PLATER KONBINATUAK  OSTAJUA

PINTXOAK **ONGI PASA BESTAK!**
BOKATAK

TFNOA: 948 630 259 BERA

 **sarobe**[®]
gozotegia okindegia

p^o de eztegara 25 bajo 31780 bera (navarra) t.948 63 08 99
www.sarobe.net

froling  **Alemanian gehien saltzen den egurrezko galdara**

Etorri gure erakusketa ikustera:
Bidasoa Karrika, 45 - BERA
PATXI MUTUBERRIA ITURRIA
686 23 52 30 - patximutu@hotmail.com 

ONGI PASA HERRIKO BESTAK!

 **errandonea**
EDARIAK

Ziobi 11, Alkaiaga Industrialdea.
31789 BERA Tel. 948 630 982

 **OTXAMARI CARROCERIAS**

ONGI PASA BESTAK!

Zalain Industrialdea 3 • Pab. 124 • 31780 BERA
Tel.: 948 625 538
otxamaricarrocarias@gmail.com



Xantelmar S.L. Zalain Ind. z/g
31780 Bera. Nafarroa.
Tel: 948 625156 Fax: 948 625 157
www.martiko.com



BESTA ONAK PASA!



ZURE GOZAMENERAKO LEHENGAIK HOBERENAK.

DENDA ORDUTEGIA
Astelehenetik-ortziralera 08:00-17:00

Martiko Zalain Ind. z/g 31780 Bera Nafarroa
Tel. 948 625 016 Fax: 948 625 036
www.martiko.com · martiko@martiko.com

ZORIONAK!



DANCHARIA



BÉHOBIE



ARNEGUY



IBARDIN



Jantzi-dendak Lurrin-dendak Bitxi-dendak Supermerkatuak
Tabako-dendak Harategiak Jatetxeak Ostatuak
Sagardotegia Diskoteka



Ixone TELLETXEA | Udaleko kultur zinegotzia

«Soberan ez dago deus ere, faltan dirua gauza gehiago antolatu ahal izateko»

Besten aitzineko asteburuan ere hainbat ekitaldi antolatu dituzte. Horien artean aipagarriena uztailaren 31n, igandean 11:00etatik 14:00etara eginen den erraldoi topaketa izanen da. Eskualdeko konpartsak bilduko dira eta denera 18 erraldoi izanen dira, Elizondo (4), Doneztebe (2), Sunbilla (2), Igantzi (2), Lesaka (2), Etxalar (2) eta Bera (4).

Erraldoiek, noski, bere musikariak ere behar dituzte eta lan horretan ariko dira Berako musika banda, Berako txistulariak, Ezpelur gaiteroak, Baztango gaitariak, Lesakako gaiteroak, Elizondoko gaiteroak eta Bortzirietako gaiteroak. Karrika dantzak, balsak, mambo, jotak eta bertze zenbait pieza joko dituzte.

Eguraldiak laguntzen

badu, Eztegarra pilotalekutik abiatu eta Eztegarra pasealekua, Kanttonberri karrika, Legia karrika, Bidasoa karrika, Eztegarra pasealekua, Julio Caro Baroja pasealekua, Uraldea karrika eta Alzate karrikan barrena ibiliko dira, Alzateko plazara ailegatuz. Ibilbidean zehar bortz geldialdi eginen dituzte: Herriko Etxeko Plazan (Lesakako eta Berako erraldoiei dantzatuko dute), Eztegarra pasealekua (Igantzi eta Sunbilla), Julio Caro Baroja pasealekua (Elizondo eta Doneztebe), Alzate karrika (Etxalar) eta Alzateko plaza (emanaldi nagusia eta Agurra). Agurraren ondotik kalejiran joanen dira Eztegarra pilotalekuraino erraldoiak altxatzera. Euria eginez gero, ekitaldia Eztegarra pilotalekuan eginen da.

Ekitaldia Berako erraldioen konpartsak, Udalak eta Kultur Batzordeak antolatua da, Gure Txokoa elkarte, Larogoxo harategia, Xuga ostua, Manuel Taberna edariak eta Sarobe gozotegiaren laguntzaz.



UTZITAKO ARGAZKIA

Txindokira ateraldia

Ekainaren 26an Txindokira joan ziren Agerra mendi taldekoak. Hurrengo ateraldia irailaren 11n eginen dute Bidarra aldera.

KULTURA → UZTAILAREN 30 ETA 31N ETA ABUZTUAREN 1EAN

Dantzaz eta kirolaz blai bestak hasi baino lehen

Korrontzi dantzan larunbatean eta III. Berako Gau Krossa astelehen arratsean

TTIPI-TTAPA

Igandeko erraldoi topaketaz gain, besten aitzineko asteburuak bertze erakargarri aunitz izanen ditu.

Uztailaren 30ean, larunbatean 16:30ean plater tiro txapelketa jokatuko da, minifoso modalitatean, Berako Ehi-za eta Arrantza Elkarteak antolatuta.

Larunbat arratseko 10etan, berriz, Gure Txokoa elkarteak antolatutako *Korrontzi dantzan* musika eta dantza emanaldia izanen da Eztegarra pilotalekuan, Korrontzi eta Gure Txo-



koa dantza taldeekin. Sarrerak 10 eurotan salgai daude Agara prentsan (10 urte arte doan).

Igandean, erraldoi topaketaz gain, herri kirol jaialdia izanen da 19:00etan Toki Onako patioan, herriz herri txapelketako bigarren jardunaldia, hain zuzen.

Abuztuaren 1ean, astelehenean 13:00etan San Jose Zahar Etxeko familia bazkaria izanen dute. 22:00etan, berriz, Manttalek hirugarren urtez antolatutako Berako Gau Krossa eginen dute. 7,3 kilometro luze eta 300 metroko desnibela duen ibilbidea osatu beharko dute par-

te hartzeko nahitaez kopeta-argia eraman beharko duten korrikariek. Izen ematea www.manttale.com webgunean egin daiteke (federatuek 7 euro, federatu gabekoe 10 euro eta egunean bertan 13 euro).

DANBORRADA ENTSAIOAK

Abuztuaren 4an eginen den danborradarako entsaio-egunak ere zehaztuak daude. Uztailaren 30ean, larunbatean 12:00etan eta abuztuaren 1ean, astelehenean 19:00etan jarri dituzte hitzorduak Herriko Etxeko Plazan.

LABE ZAR
Tel: 948 631 076 · BERA

xirgil
jalone goya
ileapaindegi mistoa
Alzate 1, 31780 BERA
948 631 462

LESAKA

GIZARTEA → ABUZTUAREN 29TIK IRAILAREN 2RA

Haurren errehabilitazioa eta ureko terapietarako buruzko ikastaroa prestatu dute

Aitor AROTZENA

Nafarroako Unibertsitate Publikoak, Bortzirietako Guztioak taldeak, Lesakako Osasun Zentroak eta Lesakako Udalak antolatuta haurren neuroerrehabilitazioa eta ureko terapietarako buruzko ikastaroa egingen da abuztuaren 29tik irailaren 2ra udal igerilekuan.

20 orduko ikastaroa izanen da, erdia teoria eta erdia praktikoa, uretan eta buruko garapenean arazoak dituzten pertsonekin (haurrak bereziki) aritzen diren profesional, boluntario eta familiei zuzendua dago gehienbat. Matrikulazioa 75 euro gostako da.

Lehen eguneko sarrera eta formakuntza Ana Beatriz Bays, Nafarroako Unibertsitate Publikoko irakasle eta fisioterapeutak eskainiko du, abuztuaren 29an, astelehen goiz-arratsaldean.

Hurrengo egunetan

arratsaldean bakarrik arituko dira. Abuztuaren 30ean (asteartea), Arretza Goiztiarreko neuroerrehabilitazioa landuko dute Naiara Navarro Nieto fisioterapeutak eta estatu mailan haurren hidrototerapiaren erreferente den Jose Luis Sirenak. Abuztuaren 31n (asteazkena), eskola adineko haurren neuroerrehabilitazioa landuko du Naiara Navarro berak. Irailaren 1ean (ortzeguna), Nafarroako Aspaceko errehabilitazioari buruzko saioa egingen du Berako Uxane zentroan aritzen den Naiara Arriaga fisioterapeutak. Irailaren 2an, neuroerrehabilitazioaren baitan terapeuta okupazionalaren lana azalduko du Rebeca Fernandezek. Horretaz gain, Bortzirietako programaren protokolo aldatutako proposamena aurkeztuko du Belen Compains, Lesakako Osasun zentruko pediatrak.

Ba al zenekien

Bidasoko Trenbidearen mendeurrenaren erakusketa komentuko elizan bisitatzeko azken egunak direla. Uztailaren 31n bildu eta Etxalarra eta ondotik Baztan-Bidasoaldeko bertze herritara eramanez dute.



ARGAZKIAK: AITOR AROTZENA

Despediden ordua aurtengo Sanferminetan

Alfonso Obesok, Elkarrizaren elkartearen izenean piztu zuen sanferminetako lehen suzeria. 35 urte bete dituen Tantirumairu dantza taldeak jaialdia eskaini zuen; ezpatadantzariak izan ziren protagonista egun handian eta despedidak ere izan ziren: Xabier Ariztegitik Amaia Telletxea eta Mikel Mutuberriari utzi die tanborraden agintea eta Tomas Rekondok musika banda utzi du, 60 urte eta gero.



ARGAZKIA: A. AROTZENA

Inoiz baino haur gehiago udako futbol kanpusean

15 urte bete ditu gurean Erriberako Futbol Eskolak antolatutako udako kanpusean. Lehenbiziko txandan 11-12 urteko 89 haur bildu zituen (argazkian), horietatik 16 herrikoak. Bigarrenetan, 9-10 urteko 60 etorri ziren (14 herrikoak).

KIROLA → ABUZTUAREN 14AN, TXUPINAZOA BAINO LEHEN

Boluntarioak behar dira bigarren lasterketa herrikoian laguntzeko

Bertze aldetik, Bidasoko trenbidearen mendeurrenaren erakusketa Kultur Etxean izanen da abuztuaren 5etik 12ra

Iruñe ELIZAGOIEN

Iazko arrakasta ikusita aurten ere bestetako txupinazoaren aitzinetik lasterketa herrikoia egingen da.

Abuztuaren 14ko lasterketa herrikoian laguntzeko prest dagoenak Kultur etxera abisua eman behar du (kulturetxea@etxalar.eus edo 948635386) izena emanaz.

Bidasoko Trenbidearen mendeurrenaren erakusketa

Abuztuaren 5tik 12ra gure eskualdean hain ezaguna zen Bidasoko Trenaren edo Tren txiki-toaren mendeurrenaren erakusketa eskainiko da Etxalarko Kultur Etxean. Aurten trenbidea abiatu zela mendeurrena bete da eta 60 urte azken bidaia egin zuenetik, eta erakuske-



ARGAZKIA. IRUÑE ELIZAGOIEN

Egurrezko mahaiak Itturri berrian

Behoko Landa auzoko Itturri berrian Udalak egurrezko bi mahai jarri ditu bisitari eta herritarrentzat.



ARTXIBOKO ARGAZKIA

Lesakatik Etxalarrera etorriko da trenbidearen erakusketa.

ta tren honekin harremana zuten herrietan jarriko da. Erakusketan gauza desberdinak ikusteko aukera izanen da; maketak, dokumentazioa, treneko tresne-

ria eta abar... Ortziralean, astearte, asteazken eta ortzegunean 17:00etatik 20:00etara izanen da eta larunbat, igande eta astelehenean 10:00etatik 13:00etara.

Xaboa egiteko tailerra

Urte hasieran egin zen bezala, berriz ere xaboa egiteko tailerra antolatu du Herri Baraizteak, Etxalarko Azokaren baitan. Uztailearen 30ean egingen da, larunbatean 11:00etatik 13:00etara eta doan izanen da. Bertan, gorpuztean erabiltzeko kalitatezko xaboa, garbigailuarentzako xaboa edota erabiltzeko olioarekin egindako xaboiak egiteko aukera ere izanen da. Tailerra irekia da eta parte hartzaileen interesen arabera arituko dira.

FLASH

Herriko bestak

Hilabete baina gutiago falta da herriko bestetarako eta ia presaketak lanak hasi dira. Aurten gainera Altxata, Herri afari eta Asauko partaideei esker herriko bestetan mahai eta banku berriak estreinatuko dira. Eskerrik asko denei!

Arkupeak-en ateraldia Azkura

Hilabetero Arkupeak zonaldeko jubilatuen elkarteak mendi irteera bat antolatzen du. Uztailearen 18an Azkura mendira egin zen ibilaldia eta jende andana etorri zen. Ondotik bazkaria egin zuten La Basque jatetxean.

Usategietako postuen enkantea

Urtero bezala, Udalak ehiza postuen enkantearen baldintza pliega argitaratu du. Denerata larmendin sakabanatuak dauden 21 postu banatuko dira irailaren 3an eguerdiko 12etan Etxalarko Herriko Etxean egingen den enkantean.

Bidasoko Nazioarteko Gazteen Folklore Jaialdiko saioa

Uztailearen 24an Bidasoko Nazioarteko Gazteen Folklore Jaialdiaren baitan Georgia dantzariak eta Irungo Eraiki taldeko dantzariak saioa eskaini zuten Etxalarren.

BEKO
LOREAK ETA LANDAREAK
Frain Auzoa - LESAKA
Tfnoa: 948 637 826

IRU BIDE
Erretgia · Asador
Bitorrana, 3 · Lesaka
Tel: 948 637 127

USOA Nekazari kooperatiba
T. 948 635 214
ETXALAR

• Bertan egindako pentsuak, bertze markak eta ekologikoak
• Ongarriak • Burdin tresnak
• Insektizidak • Edariak • Haziak

KALEFAKZIOA eta IBILGAILUENDAKO GASOLIO MERKEENA
ETXEZ ETXEKO BANAKETA
Inskripzio Zenbakia 1435

- Lentzeria
- Bainujantziak
- Mertzeria
- Jantzi tipikoak
- Penen blusak

kattogorria
lentzeria mertzeria
Behoko plaza 10 31770 Lesaka
T. 948 627 514

ARANTZA

JENDARTEA → GAZTE ASANBLADA LANEAN

Arantza Rockeko rifak salgai paratu dituzte

Kontzertu egunean ez da sarrerarik kobratuko

Nerea ALTZURI

Bestak akautu orduko begien bistan Arantza Rock izanen dugu eta Gazte Asanbladako kideak lanean ari dira abuztuaren 20rako dena prest izan dadin.

Egitarauari dagokionez, ilunabarrean elektrotzaranga izanen da. Eta 22:00etatik aitzinera, Katez, Sorkun, Enkore eta Skasti taldeek kontzertua eskainiko dute plazan. Joan den urteko urtebetetze berezia alde batera utzi eta aitzinetako urteetako formatura itzultzea erabaki dute Gazte Asanbladako kideek eta aurten ere sarrera debalde izanen da.

Arrats guztian, jan-ediariak ere izanen dira, bertan paratuko den txosnan.

Bertzalde, rifak salzen ere ari dira, euro batean. Hiru sari izanen dira: lehenbiziko saria Euskal Herriko landa-etxe batean bi lagunentzako asteburua, bigarren saria Aterpen hiru

lagunentzako afaria eta hirugarrenik Bortzirietako liburu-denda batean gastatzeko 50 euroko bonoa.

Zozketa Arantza Rock egunean eginen dute plazan eta saridunek hilabete bateko epea izanen dute agertzeko. Zenbaki sarituak Arantza Rocken Twitter eta Facebook kontuetan, *erran.eus* webgunean, Ttipi-Ttapa aldizkarian eta Xorroxin irratian jakinaraziko dituzte.

Lehiaketa

Herriko txorrik politena eta hobeki zainduaren lehiaketara aurkeztutako argazkiak ikusgai paratu dituzte Apezenea eta Dena dendetan eta Udalaren web orrian (*www.arantza.eus*). Aitzineko alean aipatu bezala, nahi duen herritarrak argazkia bozkatzeko aukera izanen du, herritar bakoitzeko boto bat.

Herri bazkaria

Bestetako lehen eguneko zikiro jaterako txartelak eskuratzeko hondar eguna uztailaren 31 izanen da (25 euro, ostatueta).



Ba al zenekien

Estitxu Iparragirre Madariaga herritarrak hartu duela medikuaren etxea errentan bertze lau urtetarako?



ARGAZKIA: ITXARO ETXAGUE

Neska-mutikoak gozaten

Herriko haur eta gaztetxoak udakeku irekietan parte hartzen ari dira hilabete hasieratik. Hiru begirale dituzte: bertze urte batez, Itxaro Etxague herritarra arduraduan da eta berekin batera, uda honetan, Olaia Larregi ultzamarra eta Nerea Perez del Notario iruindarra begirale landetan ari dira. Eguraldiaren arabera, jarduera ezberdinak egiten dituzte. Joan den uztailaren 15ean, aro ederra zenez, Igantziko igerilekura freskatzera joan ziren. Ederki pasatu zuten!



UTZITAKO ARGAZKIA

Herriko bestetarako motorrak berotzen

Argazki koloretsu honek, Lesakako sanferminetara garamatza. Uztailaren 6ko txupinazoan, herriko trikitilari eta panderojoleek ere parte hartu zuten.

erran

Mendialdeko Albisteak
TTIPI-TTAPA aldizkaria eta XORROXIN irratia
elkarrekin eskuko telefonoan eta tabletan

e ERABILI ETA ZABALDU EDUKIAK

- ▲ Albisteak
- 📅 Agenda
- 👤 Komunitatea
- 📺 Xorroxin online
- 👤 Eguraldia
- 📄 Merkatu titkia
- 📌 Urtebetetzeak
- 📺 Bideoak
- 🖼️ Galeria

DESKARGATU APLIKAZIOA DOAN

📱 Google play
📱 App Store

- ERRAN.EUS web bertsiorekin denbora errealean sinkronizatua
- ZU ZEU KAZETARI: nahi dituzun informazio eta argazkiak bidaltzeko aukera ematen ditu
- PERTSONALIZATZEKO AUKERA nahi den gai eta herriaren araberrako bilaketak egiteko aukerarekin

GIZARTEA → UDALA KUDEATUKO DUEN LAN-TALDEAK ARDURAK BANATU DITU

Juan Carlos Unanuak beteko du alkate lana datozen hiru urteetan

Zazpi lagunek osatzen dute Herriko Etxeko kudeaketa batzordea

TTIPI-TTAPA

2015eko udal hauteskundetan ez zen zerrendarik aurkeztu herrian. Hortaz, lehengo agintaldiko udal ordezkariak ari ziren jardunean. Ekainaren 8an Nafarroako Gobernuak hartutako akordioan, udala kudeatuko duen batzordea izendatu zuten. Zazpi pertsonak osatzen dute eta beraien artean izendatu dute presidentea, hau da, Igantziko alkatea izanen dena. Juan Carlos Unanua Navarrok beteko du ardura hori.



ARTXIBOKO ARGAZKIA

Juan Carlos Unanua, alkate berria.

Berekin batera Xabier Sarasola Salegi, Aiert Retegi Telletxea, Raquel Migelena Telletxea, Manuel Telletxea Iparagirre, Jone Urtxegi Dorronsoro eta Ana Jose Irigoien Etxebeste dira Herriko Etxea kudea-

tuko duen lan taldea.

Juan Carlos Unanua alkateak aipatu duenez, «oraindik lur hartzen ari gara eta herriko etxean zer lan bete behar diren ikusten eta martxa hartzen ari gara. Jardunean aritu den lehengo



UTZITAKO ARGAZKIA

Herri kirol taldea Iruñeko Sanferminetako erakustaldian

Kimu mailako Igantziko herri kirol taldea Iruñeko Sanferminetan izan zen uztailaren 11n. Proba konbinatuaren erakustaldia egin zuten Andra Mari, Sraxes eta Berriozarko taldeekin batera.

udalaren lekukoa hartu eta geldirik zeuden gauzak desblokeatzen hasiko gara». Egoera kezagarria izan dela aipatu du alkateak, «baina norbaitek hartu behar du ardura. Horretan hasi gara. Helburu nagusia

Herriko Etxeari jarraipena ematea da, ahal dugun guztia eman eta gauzak ongi egiten saiatzea da, herria hobetzeko. Eskertzekoa da lehengo udalak eman digun babes eta laguntza ere».

FLASH

Bestetako lehen bilera

Uztailaren 14an egin zuten bestak antolatzen hasteko lehen bilera. Egunak zehaztu zituzten: irailaren 28tik urriaren 1era egingen dituzte, baina ohi bezala, aitzineko asteburuan ere izanen dira ekitaldia (Artzain zakur lehiaketa, ...).

Udaleku irekiak hasiak dira

Udaleku irekiak uztailaren 26tik abuztuaren 5era egiten ari dira. Hamar haur apuntatu dira eta begiraleak Olaia Matxikote eta Maddalen Lopez dira.


“TELLETXEA”
Lorazaintza

- Lorategiak diseinatzea eta sortzea -
- Mantentze lanak -
- Ureztatze sistema automatikoak -
- Kimaketak -


John Telletxea Nekazaritzako Ingeniari Teknikoa
LESAKA • T. 619 418 683 • johntelletxea@hotmail.com
www.telletxealorzaintza.com


XAGU
LIBURUDENDA

Tel. / Fax 948 638 232
Koskontako bidea, 7
(osasun-zentroaren parean)
31770 LESAKA

- LIBURUDENDA
- KOLORETAKO FOTOKOPIAK
- USBtik EGINDAKO INPRIMAKETAK
- ESKANERRAK
- ESKOLA MATERIALA
- INFORMATIKAKO MATERIALA
- BULEGORAKO MATERIALA
- EGUNKARIAK, ALDIZKARIAK



SUNBILLA



ARGAZKIAK: ITSASO ARRIETA ETA RAKEL ORDOKI

Ludoteketan parte hartzen ari diren neska-mutikoak.

GIZARTEA → UDA GARAIKO EKINTZAK

Ludotekatan ikasten eta ongi pasatzen ari dira ttikiak

Ingeleseko ludotekakoak zientzilari lanetan aritu dira, labazko lanpara eta sumendia eginez

Maider PETIRENA

Eskolak bere atean itxi zituen ekainaren 21ean, baina ekainaren

22an Ludoteka Ttikiak bere atean ireki zituen ttikiak 09:00etatik 13:00etara goizaz gozatzeko. Uztailaren 1ean, berriz, Ludoteka Ingelesez egiten dutenen txanda hasi zen. Azken hauek zientzilari lanetan ibili dira esperimentuak egiten, labazko lanpara lehendabiziko eta gero sumendia. Argazkian ikasle guztiak egindako sumendiarekin ageri dira.



Ba al zenekien

Uztailaren 30ean, WE eta Ride The Abelux taldeek kontzertua eskainiko dutela larunbatean 19:00etan Ariztigain kanpinean



ARGAZKIA: JAIONE OTXANDORENA

Ariztigaingo II. Mus Tximista txapelketan arantzarrak nagusi

Ariztigainek antolatutako II. Mus Tximista jokatu zen uztailaren 2an. Bazkari eder baten ondoren, 50 bikotek parte hartu zuten musean. Irabazleak Pottune eta Inaxio izan ziren eta horren ondorioz txapelak Arantzara joan ziren. Bigarrenak Eugiko Iban eta Sergio, hirugarrenak Ultzamako Timoteo eta Iñaki eta laugarrenak berriz arantzarrak izan ziren Julen eta Beñat.



ARGAZKIA: BIDAD IBARRA

Ulibeltzak mendi taldekoak Tailloren

Ulibeltzak Mendi Taldekoak uztailaren 17an Taillo mendira igo ziren (3.147 metro). Argazki ederra atera zuten.



ARGAZKIA: MAIDER PETIRENA

Herriko trikitilari eta panderojoleak harat eta honat

Uztailaren 15ean Iturengo bestetan Sunbillako trikitixa eta panderojoleak parte hartu zuten karrikabueltan. Uztailaren 17ko Baztandarren Biltzarrean herriko dantzariak Baztango dantzarien artean dantza egiteko aukera izan zuten. Egun ederraz gozatu zuten. Mendaur Trikitixa-pandero eskolak ere itzulia egin zuten eta Sunbillako trikitilari eta panderojoleak parte hartu zuten bertan.

GIZARTEA → UDALAK DISEINATU DU KONTZIENTZIAZIO KANPAINA

Zakurren kakak gure karriketan eragozteko kanpaina abiatu da

Jabeei eskutitz pertsonalizatua bidaliko zaie eta kartelak, bandoak eta bertzelako ekimenak egingen dira

Marga ERDOZAIN

Intzakardi, Mourges karrika, Elizagibela, Zazpigurutzetako parketan baita herriko karriketan maizegi gure oinek topo egiten dute hainbat herritarren zakurrek egindako kakekin. Denok dakigu zakurrak animalia arras maitatuak direla, baina herritarren arteko elkarbizitza eta arazoak ekiditeko, zakurren kakaren kontrola, baita zakurrek gure parke eta karriketan nola joan behar duten garbi adierazteko, udalak kanpaina diseinatu du. Kanpaina hau gizalegezko jokoera bultzatzeko eta eremu publikoen babes arautzen duen ordenantzan oinarritzen da. Burututako ekimenen barrenean Udalak zakurren jabeei eskutitz pertsonalizatua bidaliko die. Bertan parketan zakurrak ibiltzea debekatua dagoela garbi adieraziko da. Horretaz gain, animaliek lotuta joan behar dutela aipatu, baita egindako kaka jabeei jasotzea dagokiera ere aipatuko da. Gai honekiko arreta piztu eta kontzientziazioa areagotzeko, eskutitzaz



ARGAZKIA: TELLETXEA

Euskal Herriko Herriarteko pilota txapelketaren finalean

Aldizkari hau esku artean duzunerako jakina izanen da Doneztebek Euskal Herriko Herriarteko pilota txapelketa hirugarrenez irabazi duen edo ez. Uztailaren 23an jokatzekoa zuen finala Zarautzen Azpeitiaren kontra. Nafarroakoa irabazi ondotik, Euskal Herrikoan Markinaren kontra jokatu zuen finalerdia herriko pilota taldeak. Donezteben nahiz Bizkaian hiru partidetatik irabazita lortu zuen finalerako sailkatzea. Irabazi ala galdu, urte borobila osatu dute, Nafarroako Herriartekoaz gain, Errekak Berria txapelketa ere irabazi baitzuen.

gain, kartelak, bandoak... egingen dira.

Etorkizunari begira, udala beste neurri batzuk aztertzean ari da: kakak egiteko gune bat eraiki, hainbat tokitan kakak biltzeko poltsak altxatzeko guneak...

Udalak era positibo eta aktiboan abiatu du ekimen hau eta herritarrek dagokion ardurak hartzera animatuz. Arauak eta aholkuak beteke ez balira, udalak neurri gogorragoak baita isunak ere aurrekusten ditu.

Igeriketa eta aguagym abuztuan

Igeriketa ikastaroak uztailean egingen ari dira

bi txandatan. Abuztura-ko hobekuntza ikastaroak eta igeriketa ikastaroak aurrekusi dira astean bi egunez, 10:00-etatik 13:00-etara eta hila bete osoz.. Interesatuak igerilekuan izena ematen ahal dute. Aquagym ikastaroa ere abuztuan eskainiko da. Uztailean 12 bat lagun aritu dira kirol gustagarrari hau egingen eta, arrakasta ikusita, abuztuan ere antolatzea erabaki du udalak. Abuztu osoan, astearte eta ortzegunetan arratsaldeko 7:15etik 8etara egingen da aipatutako ikastaroa. Edurne irakasleak bideratuko ditu igeriketa eta aguagym ikastaroa.

Askin haur eskolako atea itxiak iraila bitarte

Uztailaren 12an haur eskolak 2015-16 ikasturte bukaerako besta ospatu zuen. Guraso, umeak eta eskolako langileek besta politaz gozatu zuten. Mandarrak zintzilikatura, merezitako atsendaldia hartuko dute txikitxoek baita langileek ere. Irailerako eskola prest egonen da berriro ikasturte berriari ongi etorria emateko. Udako oporretan mantentze lanak burutuko dira dena atoko-attoko izateko.

FLASH

Liburutegia itxia

Udako oporrak direla eta, liburutegia abuztuaren 22ra arte itxia egonen da. Egun horretatik aitzinera eta irailaren 12ra bitarte udako ordutegiarekin idekiko da, hau da 10:30-etik 13:30era.

Bidasoko trenaren erakusketa

Baztan, Bortziriki eta Malerrekako hainbat herritan bidaiatu ondoren, gurean abuztuaren 27tik irailaren 5era ikusgai izanen da. Erakusketa Herriko Ostatuan dastatzeko aukera izanen da. Azaroran erakusketa berriro gurera ekarriko da San Miguel eta Mendaur institutuko ikasleek ikus dezaten.

EGA eta C1 titulua ateratzeko

ikastaroa abuztuan

Doneztebeko IKA eskolategiak, urtero bezala, EGA eta C1 ikastaroa antolatu du. Ikastaroa abuztuaren 8tik irailaren 2ra burutuko da eta bi eratara egin daiteke: klase presentzialak eta on-line edo autoikaskuntzaren bidez. Interesatuak abuztuaren 3ra arte dute apuntatzeko aukera. Argibide gehiago 948 451555 telefonoan edo malerreka@ikaeuskaltegiak.eus helbidean.

Gaztetxo eta gazteen laxoa txapelketa

Doneztebek 5 talde izanen ditu aurten: 3 gaztetxo eta 2 gazteen txapelketan. Osotara 20 gazte hauek Arraioz, Oiz eta Iruiritako taldeetako kideen aurka lehiatuko dira. Harrobi polita!

ITUREN

OSPAKIZUNAK → UZTAILAREN 15ETIK 18RA

Eguraldi eta giro bikaina izan da herriko bestetan

Arkaitz MINDEGIA

Uztail erdi aldera ospatu ziren herriko bestak, giro, umore eta eguraldi bikainarekin joan ziren. Uztailaren 15etik 18ra adin guzietarako jendearentzako antolatutako ziren ekitaldietan denak parte hartzaile izan ziren. Batzuk aipatzearaz gaitik haurrentzako herri kirolak, lbintzako dantzariak, zumba, dantzaldiak, kantaldiak, mus txapelketa... baina bertze ekitaldiak ere dotore joan ziren.

Aurtengoan beste hasiera ematen dion suziria jaurtitzeko ohorea herriko bi kirolarik izan zuten, Jabien Sein mendi bizikletako txirrindulariak eta Ugaitz Elizalde pilotariak. Txupina-

zoa baino lehen, dena den, haurren herri kirolen ekitaldia ere izan zen.

Pilota kontuei dago kienez, emakumezkoen frontenis txapelketaren finalean Naroa eta Izarok 30-25 irabazi zieten Iratxe eta Mariari. Esku pilota partida nagusian, Ugaitz Elizalde herritarra eta Jon Olai-zola lesakarrak 25-20 irabazi zieten Asier Olai-zola eta Iñaki Eskudorori. Herritarren artekoan, berriz, Oier eta Julenek 22-20 irabazi zuten.

Astelehenean herri bazkari, bertsolari, trikitilariekin, barrenetik eta kanpotik bustiz kantu eta dantzan amaiera ederra emanaz bukatu ziren aurtengo bestak.



UTZITAKO ARGAZKIAK

Giro ederrean joan dira bestak, argazkian ageri denez.

UZTAILAREN 12AN IRUÑEAN

Nafarroako ingude txapelketa irabazi du Maika Ariztegik

A. MINDEGIA

Iruñeko Sanferminetan Foruen plazan hainbat herri kirol modalitateetako Nafarroako txapelketa eta erakustaldi egiten dira. Maika Ariztegi herritarra bertze behin ere Nafarroako Emakumeen ingude txapelketan txapeldun suertatu zen, minutu batean 92 altxaldi eman zizkion bederatzi kiloko ingudeari, Iruñeko Eider Lopez, Edurne Gonzalez eta Beintza Labaiengo Iruñe Izkueren aurretik geldituz.

Bertze egun batean emakumezkoen aizkora erakustaldian parte hartu zuen Iruñe Izkuerekin bikotea eginez, Itxaso Onsalo eta Nerea Sorondoren aurka. Malerrekakoak nagusitu ziren.



UTZITAKO ARGAZKIA

Herriko joaldun eta trikitilariak Baztandarren Biltzarrean

Aurten 53. aldiz ospatu den Baztandarren Biltzarrean herrikoek ere parte hartu dute orgen desfilean. Urtero bezala desfilea irekitzen Iturengo Joaldunak izan ziren beraien joare soinuekin eta Berroetako orgaren gibeletik Mendaur trikipandero eskolako Ituren, Saldias, Elizondo, Sunbila, Oronozko...ikasleek beraien triki eta panderoekin ibilbidean zehar kantuak joaz eta abesten ibili ziren.

GIZARTEA → UZTAILAREN 7AN

Auzo konposta bildu eta banatu dute lehen aldiz herritarren artean

Zenbait bizilagunek etxera eraman zuten eta ludotekako haurrek letxugak landatzeko erabili zuten

Fermin ETXEKOLONEA

Malerrekan paratutako lehenbiziko auzoko konpostagailua Zubietan izan zen eta pasa den uztailaren 7an Zubietako udalak auzo-

ko konpostaren bana-keta egin zuen. Hualdea etxearen atzeko aldean jarria zegoen 800 litroko konpostagailua hustu eta hurbildu ziren herritarrek etxera eraman zuten gero baraztean edota loreekin probexteko. Hitzordua goizeko hamarretan zen eta hamaiketarako akitu zen. Jendea arunt konten joan zen etxera. Herriko ludotekan dauden haurrek ere auzoko konposta probextu zuten eta Maritxu eta Naroaren laguntzarekin letxugak landatu zituzten.



ARGAZKIAK: ERNESTO DOMINGUEZ

Goiko argazkian herritarrek ageri dira, konposta biltzen. Txikienek ere aprobetxatu zuten eta ludotekako neska-mutikoei letxugak landatu zituzten.

FLASH

Patxi Mindegia Ezkurako finalera

Nafarroako hirugarren mailako aizkora txapelketako kanporaketa jokatu zen uztailaren 11n Iruñeko Sanferminetan. 13 aizkolarari aritu ziren lehiari abuztuaren 14an Ezkurran jokatu den finaleko bost txartelen bila. Denetan bizkorren Patxi Mindegia herritarra izan zen. Bi kanaerdikoak mozteko 5 minutu eta 16 segundo behar izan zituen. Beintza-Labaiengo Jesus Etxeberria, Jon Telletxea eta Jacinto Etxekonanea eta Uhartearakigo Iker Gorriti izanen ditu arerio Ezkurran.

Mikele Etxekolonea mendi bizikletan

Mikele Etxekolonea mendi bizikletan konpetitzen segitzen du. Meridan (Extremadura) ibili zen kadete mailako Espainiako txapelketan uztailaren 9an. Esperientzia aberasgarria izan zen.

Sendotza

Herriko hiru gaztek egin dute sendotza: Julen Santesteban, Naroa Santesteban eta Zuriñe Bueno.



UTZITAKO ARGAZKIA

Joaldunak Hiru Behien Zergaren ospakizunean

Udako irteeretan dabilza herriko joaldunak. Iruñeko Sanferminetan, Angel Mariezkurrenak antolatutako Baluarteko kantu zaharren egunean parte hartu zuten. Hiru Behien Zergaren ekitaldian ere aritu ziren joareak jotzen uztailaren 13an, Isaban. Ospakizun hau XIV. mendetik egiten da, Erronkari eta Biarnoko herrien artean eta aurtengo joareak ez zizkiz, joaldunenak ere aditu ziren.

BEINTZA-LABAIEN

BESTAK → ABUZTUAREN 5ETIK 8RA

Herri bazkari eta kantu zaharrek akituko dituzte bestak

Larunbat arratsaldean aizkora apustua egingen dute Labaienen

TTIPI-TTAPA

Lau eguneko bestak antolatuta dituzte Beintza-Labaienen. Beti bezala, ekitaldiak txandaka egingen dira, egun batean Labaienen eta hurrengoan Beintzan:

ORTZIRALEA, ABUZTUAK 5 (BEINTZA)

- 20:00etan altxaferoak, beste hasiera emateko.
- Ondoren karrikarronda herriko trikitilariekin
- 21:00etan zopak, ltturrondo elkartean eta Labaiengo ostatuan

- Gauetz dantzaldia DJ Txingudiren eskutik.

LARUNBATA, ABUZTUAK 6 (LABAIEN)

- Goizean karrikarronda herriko trikitilariekin.
- 11:00etan: Plater-tiroketa.
- Goizez eta arratsalde zarts eta puzgarriak.
- 19:30ean aizkora apustua: Larretxea eta Irazu vs. Otaegi eta Arria V.
- Arratsalde eta gauetz dantzaldia Trakets taldearekin.

IGANDEA, ABUZTUAK 7 (BEINTZA)

- Goizean karrikarronda Iturengo txistulariekin.
- 11:30ean Meza nagusia.
- Ondotik, dantzariak



ARGAZKIAK: ARANTXA ITURRALDE

Hondar eguneko herri bazkarian giro ederra izanen dute aurten ere. Bazkalondoan, kantu zaharrak abesteko aukera izanen da. Meza Nagusira herriko bandera eramanen dute.

- eta gero Luntxa.
- 17:00etan Mus Txapelketa.
- Goiz eta arratsalde Jumping puzgarria,
- 21:00etan Tortilla eta postre lehiaketa.
- Arratsalde eta gauetz dantzaldia Joxe Angel soinulariarekin.

ASTELEHENA, ABUZTUAK 8 (LABAIEN)

- Goizean karrikarronda Iturengo txistulariekin.
- 14:00etan: herri bazkaria. Ondoren, Kantu zaharrak abesteko dituzte, Anjel Mari-ekurrenaren eskutik.

- Bazkal ondoren, karrikarronda Iturengo txistulariekin.
- Arratsalde eta gauetz azkeneko dantzaldia Joxe Anjel soinulariarekin.
- 24:00etan "Gaixoa ni" beste bukaera emanez.

BEINTZA-LABAIENGO UDALTZA

*Besta onak
opa dizkie
herritar
eta bisitari
guztiei*

ORBELA
SENDERISMO ATERPETXEA

Ongi pasa bestak!

Idoia - Mikel | T. 948 450 014 | BEINTZA-LABAIEN
orbela@alberquesnavarra.com | www.beintza-orbela.com

TTIPI-TTAPA ALDIZKARIA SARE SOZIALEAN

facebook

www.facebook.com/ttipi.eus

BESTAK → ABUZTUAREN 3TIK 7RA

Santo Domingo bestak ospatuko dituzte abuztu hasieran

Larunbatean herri bazkaria eta igandean aizkora apustu mistoa jokatuko dute

TTIPI-TTAPA

Bortz eguneko Santo Domingo bestak antolatu dituzte aurten Gaztelun. Egun handiko meza eta partxis lehiaketaz gain, larunbatean herri bazkaria eta igandeko aizkora apustu mistoa dira ekitaldirik aipagarrienak.

ASTEAZKENA, ABUZTUAK 3 BEZPERA

- 20:00etan suziriak eta ondoren txistulariak herria alaitzen ibiliko dira.
- 21:00etan Zopak Herriko Ostatuan.

ORTZEGUNA, ABUZTUAK 4 SANTO DOMINGO EGUNA

- 11:00etan kalejira txis-

tulariekin.

- 12:00etan Meza Nagusia eta ondoren salda Herriko Ostatuan.
- 17:00etan partxis txapelketa.
- 20:00etatik 22:00etara dantzaldia Agerralderekin.

ORTZIRALEA, ABUZTUAK 5

- 10:00etan kalejira.
- Goizez eta arratsalde jokoak eta puzgarriak.
- 20:00etatik 22:00etara dantzaldia Agerralderekin.

LARUNBATA, ABUZTUAK 6

- 09:00etan gosaria plazan.
- 14:00etan herri bazkaria.
- 20:00etatik 22:00etara dantzaldia Agerralderekin.
- 00:00etan dantzaldia Puro Relajorekin.

IGANDEA, ABUZTUAK 7

- 10:00etan kalejira.
- 13:00etan aizkora apustua: Jon Irazu eta Nerea Sorondo, Do-



ARTXIBOKO ARGAZKIAK

Goiko argazkian, 1952an Gazteluko eskolako ikasleak ageri dira. Beheitikoa, haurrak 2006ko bestetan. Ea batean nahiz bertean norbait ezagutzen duzuen.

nato Larretxea eta ltsaso Onsaloren kontra ariko dira.

- 17:00etan mus txapelketa.
- 20:00etatik 22:00etara dantzaldia Agerralderekin. Ondotik, Gaixoa Ni bestak akitzeko.

GAZTELUKO BESTAK

ABUZTUAREN SAN ASTEAZKENA ZOPAK OSTATUAN GAUEKO 9ETAN

GAZTELUKO OSTATUA
948 45 01 05

BEINTZA-LABAIEN ETA URROZKO UDALEN ARAUDIA

Leurtzako urtegiaren ezin da ur-ontzirik sartu

TTIPI-TTAPA

Beintza-Labaien eta Urrozko udalek onartu duten araudiaren arabera, ezin izanen da Leurtzako urtegiaren kirolerako ur-ontzirik edo gisako tresnarik sartu. Neurri hau, zebra-muskulua bezalako kanpoko izu-rrite-espezieak edo ekosistema kalteu dezaketean bertze batzuk ez uga-

ritzeko hartu dute. Kontserbazioari dagozkion bertze hamar jarduera eta zirkulazioari dagozkion bertze hiru ere debekatzen ditu araudiak. Leurtzako natur eremuan gerta daitezkeen ezbeharrak ez dituzte bere gain hartuko, bereziki enbaltsean bainatzeari lotutakoak. Jarduera hau ez dute aholkatzen.

Ongi pasa bestak!

TXARUTA, S.L.

Iturgintza | kalefakzioa | Gasa

BIOMASA INSTALAZIOAK

KOMUNAK | SUKALDEAK
BEROKUNTZAKO INSTALAZIOAK
EGUZKI PLAKEN INSTALAZIOAK
AEROTERMIA
PELLET | EGURRA | GASOLIOA | GASA

31750 - GAZTELU - DONAMARIA NAFARROA
T. 948 451 728 M. 659 770 015 M. 659 234 825
@ txarutasl@yahoo.es

KIROLA

LAXOA → HAMABI TALDE ARI DIRA GUZTIRA

Gaztetxo eta gazteen laxoa txapelketak abiatu dira

Bi mailetakoko finalak Arraiozko plazan jokatu dituzte irailaren 17an

TTIPI-TTAPA

Uztailaren 23an abiatu dira Laxoa Elkar-teak antolatutako gazte eta gaztetxoen laxoa txapelketak. Bortz taldek eman dute izena gazteetan, Arraioz, Doneztebe A eta B, Irurita eta Oizek. Gaztetxoe-

tan, berriz, zazpi talde ariko dira, Doneztebe eta Irurita hiruna eta Oizkoa. Bi txapelketakoko finalak irailaren 17an jokatu dituzte Arraiozko plazan.

Ligaxkako eta finalerdietako partidak 7 jokoetara jokatu dituzte eta finala 9 jokoetara. Ligaxkako sailkapenaren arabera, gazte mailan finala zuzenean bi lehenbizkoek jokatu dute. Gaztetxo mailan, berriz, bi multzotan banatuak arituko direnez, lehen multzoko lehenak bigarren multzoko bigarrenaren kontra



ARTXIBOKO ARGAZKIA

2000. urteko gaztetxoaren finala Oizen. Urtero, etorkizuneko laxoa jokalariaik trebatzen dira ttikienen txapelketetan.

eta alderantziz jokatu dituzte finalerdiak irailaren 3 eta 10ean.

JOKALARIAK

Gazte mailan, honako taldeak ariko dira: Arraioz (Eki Etxandi, Josu Etxandi, Urki Etxandi eta Mikel Organbide); Doneztebe A (Goio Mingedia, Aimar Jabalera, Oier Aldabe eta Mikel Tajadura), Doneztebe B (Unai San Miguel, Iñigo Belarra, Aimar Sarratea eta Joseba Bengoetxea) Irurita (Pablo Dorregarai, Unai Aleman, Asier

Mariezkurrena eta Unai Bikondo) eta Oiz (Ioritz Zelaieta, Iñaki Maylin, Zorion Zelaieta eta Jon Oiartzabal).

Gaztetxo mailan, honako talde hauek ariko dira: Doneztebe A (David Mitxeo, Ander Ruiz, Erik Garcia eta Eneko Maylin); Doneztebe B (Mikel Juanotena, Odei Mariezkurrena, Pello Sein eta Urko Oiartzabal); Doneztebe C (Oier Apezetxea, Markel Jabalera, Jokin Arozena eta Ekaitz San Martin); Irurita A (Xuban Itu-

regi, Egoi Iturregi, Mikel Bidegarai eta Ander Lakosta); Irurita B (Jon Sagaseta, Hodei Aleman, Iban Villoria, Aritz Bikondo eta Julen Urreaga); Irurita C (Beñat Mariezkurrena, Arturo Iturralde, Imanol Zoko eta Garai Dendarrieta) eta Oiz (Xuban Ilarregi, Mikel Mikelarena, Oscar Ilarregi eta Aimar Ariztegi). Lehen multzotan Oiz, Irurita C eta Doneztebe C ariko dira eta bigarren multzotan, Doneztebe A eta B eta Irurita B eta C.

GIZARTEA

OMENALDIA → MIGEL ANGEL SAGASETA ARIZTEGI

50 urtez apezizateagatik omendu dute

TTIPI-TTAPA

Aita donamariarra eta ama oiztarra, Iturenen jaio zen duela 75 urte Migel Angel Sagaseta Ariztegi. Apezteko erabakia «oso erraza

izan zen. Sei urte zahirragoa den anaia, Aurelio, nik beti ikusi dut etxean apezgai edo apez. Baina baziren beste apezgai asko Iturenen».



ARGAZKIA: GUAIXE.EUS

50 urte bete ditu apaizgoan Iturenen sortutako Migel Angel Sagasetak.

Luzaiden zazpi urte eman zituen apez. Leitzan zortzi. Etxarri Aranatzen 15 eta Urdiainen 20 urte egin ditu. Eta beti dagokion herriari

dagokion ikerketaren bat egin izan du: Luzaiden dantzari buruz; Etxarri Aranazko Konzezio ermitari buruzko liburua argitaratu zuen

eta Urdiango elizari buruzkoa gero. Guztira, 50 urte bete ditu apaizgoan eta omenaldia eskaini zioten uztailaren 4an Urdiainen.

HITZORDUA → UZTAILAREN 30EAN

Euskal Selektzioaren aldeko mendi martxa herritik abiatuko da

Zortzi eguneko zeharkaldia, Urduñan bukatuko da

JM BARRIOLA

Euskal Selektzioaren Aldeko Mendi Martxak 2000. urtean ekin zion ESAITen babespean bere ibilbideari. Orduetik urtero antolatu dute eta ESAIT desagertu bada ere, mendi martxak aurrera segi eta 16. edizioa izanen da aurtengoa. Uztailaren 30ean abiatu-

ko dira eta zortzi egunez Leitzatik Urduña arteko zeharkaldia egingo da *Euskal Selektzioa Martxan, herri borondatez ofizialtasuna!* lelopean. Egunean batz besteko 7-8 orduko txangoa egingen da, 20-30 kilometro ibiliz. Mendibil Mendi taldeak bat egin du deialdiarekin eta 10:30ean plazara azaldu eta mendi martxan parte hartuko dutenekin batera Betelura arteko bidea egitera animatu nahi dituzte herritarrek.



UTZITAKO ARGAZKIA

Herriko plazatik 10:30ean abiatuko da mendi martxa.

Ba al zenekien

Atekabeltz herriguneak 11. urteurrena ospatu zuela uztailaren 23an. Eta gizarte zerbitzuekin batera, ligatzeko tailerra ere egin dute uztailaren 14tik 26ra bitartean.



ARGAZKIA: UDALA

Kirol Instalazioen mantentze lanetarako langilea hartu du udalak

Herriko kirol jarduerak kudeatzeaz arduratuko den Anikote enpresan, kiroldegiko mantenimendu lanetan aritzeko, langilea hartu du Udalak. Lan merkatura bueltatzeko zailtasun gehien duen gizarte esparrura zuzendu zuen Udalak deialdia. Hau da, 50 urtetik gorako langabetuei aukera eman nahi izan zuten. Hautaketa fasea bukatu ondotik, uztailaren 19an hasi zen lanean deialdian aurrenekoa gelditu zen Josetxo Arizteta leitzarra. Bukatzeko aipatu behar da, kiroldegia txukuntzeko lanak direla eta erabiltzaileentzat itxita egonen dela datozen asteetan.



UTZITAKO ARGAZKIA

Jon Kanflankak bigarren irabazi du Nafarroako sega txapelketa

Uztailaren 10ean Azkaraten jokatu zen norgehiagokan Mikel Berekoetxea gorritarra izan zuen arerio leitzarrak. Segalari bakoitzak 45 minutuz ahalik eta belar gehien ebaki behar zuten. Jon Kanflankak 1.584 kilo ebaki zituen eta Mikel Berekoetxeak 1.297 kilo eta erdi, beraz, 287 kilo inguruko alde atera dio txapelkunak. Euskal Herriko Sega Txapelketan aritzeak dira biak eta kanporaketa uztailaren 24an jokatu behar zuten Aian.



Migel Angel Sukuntzak nagusitasunez irabazi du txinga eramate txapelketa

Iruñeko Sanferminetako azken egunean jokatu zen Nafarroako gizonen txinga eramate txapelketan 50na kiloko txingekin 22 plaza eta 0,70 metro egin zituen. 2009, 2010, 2011 eta 2012 urteetan txinga eramaten Nafarroako txapelkun izan zen Sukuntza baita urte pare batez Euskal Herriko azpitxapelkun ere. Azken aldira utzitzeak zituen txingak baina indarrez bueltatu da plazara. Daniel Saldias arraioztarra bigarren izan zen (8 plaza eta 2,40 metro), Irurtzungo Jon Irañeta hirugarren (6 plaza eta 1,16 metro) eta Iruñeko Albaro Zugarrondo laugarren (4 plaza eta laurden eta 5,55 metro).

ARESO

KIROLA → MARKA GUZTIAK HAUTSIZ

Nafarroako arpana lehiaketa irabazi dute Itxaso Onsalo eta Leire Astisaranek

Leire Baraibar bosgarren izan da Tolosaldeko 3 tontorretan

Juana Mari SAIZAR

Herriko neska kirolariak sasoiko dabilta azken aldian. Uztailaren 8an txapel beltza lortu eta gainera, Nafarroako eta Euskadiko errekorrak gainditu dituzte Itxaso eta Leire Iruñe-

ko Sanferminetako jaialdian. 45 ontzako enborrari 10 epai egiteko 03:54.34 behar izan zuten.

Leire Baraibarrek berriz, Tolosaldeko 3 tontorrek mendi maratoian parte hartu zuen eta 5. emakumea izan zen helmugan. 05:58:08 denboran egin zuen 42,7 kilometroko bidea; tartean Hernio, Uzturre eta Erroizpetik igaroz.



ARGAZKIA: ATARIA.INFO

Ezkerreko argazkian Itxaso, Leire eta Itzea. Eskubikoan Leire, Tolosaldeko podiumean.



ARGAZKIA: JUANA MARI SAIZAR

Udaz gozaten primeran dabilta herriko ttikienak!

Azken urteetan bezala, ludoteka zerbitzua dago herrian. Ane Miren herritarra eta Guratz uitziarra dira begiraleak eta argazkian ikusten denez, herriko hainbat txokotara irteerak ere egiten ari dira. Ilunbeko mahaira joan eta ederki ibili dira!

Ba al zenekien

Plazako parkearen goiko aldean mahaiak eta barbakoa egiteko txokoa prestatzen ari direla.

ARANO

GIZARTEA → 'ARANO AMESTUZ' TAILERRA

Herriko umeak testigua hartzeko prest

Ainhoa ANSA

Herrigintza eskolaren baitan, hilabete hasieran umeak elkartu nahi izan genituen Arano amestu izeneko tailerrean. Herriko guraso gutxi batzuen eta Mendialdea Mankomunitateko garapen agentearen laguntzaz,

herriaz hausnartu eta etorkizunean Arano nola imajinatzen zuten pentsatzen jarri genituen.

Hausnarketa horretatik mural bat atera zen eta herriko festetan ikusgai egon da. Eskola bat, kontsumo talde bat, dendak, jende gehiago... mar-

gotu zituzten mural horretan.

Gure umeak ez dauke lo, herriaren etorkizunaren testigua hartzeko gogoz baizik. Horregatik, amesteko gai direlako bakarrik ere, gehiago entzun beharko genuke haien ahotsa.



ARGAZKIAK: AINHOA ANSA

Etorkizuneko Arano irudikatuz murala osatu zutenan.

Hasteko, aurtengo herriko festetako itxarora ere haien omenez joan zen! Laster gure he-

rriaren norabidean erabakitzen izango ditugu! Bitartean... ume izaten ere utziko diegu noski!

GIZARTEA → UZTAILAREN 31 ARTE

Festetan entzun nahi diren abestiak aukeratzeko lehiaketa abian

Abuztuaren 8an egingen da sari banaketa

TTIPI-TTAPA

Gizarte Zerbitzuen Goizueta-Aranoko Prebentzio Batzordeak antolatuta "Zuk aukeratu zuk dantza egin" lehiaketa egingen ari da egunotan, uztailaren 10etik 31 arte. Lehiaketaren helburua da abesti bilketa bat egitea. «Denon artean erabaki nahi ditugu festetan entzungo diren abestiak. Dibertigarriak, dantza egiteko modukoak eta giro ona sortzen duten abestiak izanen dira, eta ez era-

sotzaileak», diote antolatzaileek. Edonork bidali ditzake nahi dituen abesti guztiak.

Parte hartzaileek mezu bat bidali behar dute honako bideak erabiliz. Telefonoa (whatsapp) bidez, 681 265188 zenbakira deituz; Facebook (Laga Gizarte Zerbitzua) edo Twitterra (Laga Gizarte Zerb). Mezuaren agertu behar dira pertsonaren izena eta kontaktua, abestia eta abeslaria edo taldea eta nahi izanez gero, abestia bidaltzea ere posible da.

Sari banaketa abuztuaren 8an, astelehenean egingen da.

ALDAKETA AMABIRJINETAN

Plazako obrak direla eta, ez da zezenik izanen festetan

TTIPI-TTAPA

Egitarau zehatza hurrengo alean jasoko duzue, baina plazako obrak direla eta, aurten ez da zezenik izanen festetan. Plazako lur zolaketan lanak egiteko Nafarroako Gobernuaren dirulaguntza jasotzeko, ezin zen festak pasa arte itxaron eta obrek hiru hilabete inguru irautea aurreikusten denez, ez zegoen beste aukerarik. Zezenetako diru kantitatea beste ekintza batzuetan inbertituko da, eta horrek, egitarauko ekitaldiak indartsuak izateko aukera ematen du: umeen egunean trialsin ikuskizun berezia; abuztuaren 14ko erraldoien topaketa egingo da; 15ean, herri kirolak eta bertsolariak; 17an Nafarroako jotak; eta 18 iluntzean Zo-zongo batu-kadak alaituko ditu kaleak.



ARGAZKIAK: FELIX LOIARTE

Karmen bezpera giro onean ospatu dute

Gau giro bikainean joan zen Karmen bezperako afaria. Tortilla lehiaketan bederatzia aurkeztu ziren eta Oroitz Zurutuza eta Bakartxo Huizirena suertatu ziren txapeldun. Ondotik, plaza inguruan jarritako mahaietan bapo afaldu zuten goizuetarrek eta suaren gainean saltoka ibili ziren animatuenak.



ARGAZKIA: PILI APEZETXEA

Umore Onakoak Nafarroako Auroren Topaketan Cascanten

Nafarroako Auroren berrogeigarren topaketa egin zen uztailaren 17an Cascanten. Bertan, ehunka aurorok hartu zuten parte, hauetatik, 70en bat Ereñotzuko Ozenki eta Goizuetako Umore Ona abesbatzakoak ziren. Hamaiketako eder bat egin ondoren kantatzen segitu zuten eta bazkaldu eta gero ere kanta artean egun beroa bukatu zuten umore ederrean.

BAZTAN

OSPAKIZUNAK → HIRUGARRENEZ SEGIDAN

Gartzainek irabazi du Baztandarren Biltzarreko orga lehiaketa

Erratzuk ez zuen karrozarik karrikaratu, 'Kaxtel' gogoan

TTIPI-TTAPA

Eguraldi beroa aprobetxatuz jendetza bilduzen Elizondon Baztandarren Biltzarren 53. edizioan. Hamasei karroza ere karrikaratu zituzten baztandarrek. Herri guztietakoak izan ziren, Erratzukoak izan ezik. Xabier Rekarte *Kaxtel* gaztearen heriotzak bestarako gogorik utzi gabe utzi ditu erratzuarrak aurtan.

Iturengo joaldunen ondotik, Ikurriña, Nafarroa eta Baztango ikurak zetozen eta aurtan 50 urte bete dituen Elizondoko Lanbide Eskolako Maite Ariztegik, lehen promozioako Bizente Gazteluk eta azken promozioako Bridget Luckyk zeramazkiten. Ohikoa denez, Baztango historia, etnografia

eta ohiturak agertzen zizuten organ aitzinetik, Baztango dantzariak eta txistulariak eta Iruñeko gaiteroak zetozen, baita garai bateko Mariezkurrenaren autobus zaharberriua ere.

Amaiur eta Elizondoko Sagatsak kuadrilak, 1959tik 1966ra Gorramendiko Itzulegi inguruan izan zen Estatu Batuetako base militarra gogoratu zuten. Berroetakoak, garai batean emakumeek arropa nola garbitzen zuten erakusten zuten eta bigarren saria lortu zuten. Gartzainek, berriz, artilea oinarri hartuta haria nola egiten zen, prozesu osoa erakutsi zuten. Lehen saria jaso zuten hirugarren urtez segidan. Azpilkuetan talo on bat egiteko modua azaldu zuten. Zigak, Abar tanera eramaten zituzten ardiak ebatsi eta ebasketa salatzeko guardia zibilarekin izaten zituzten hizkuntza arazoak antzestu zituzten, helikoptero eta guzti. Almandozkoak ehiza zu-



en protagonista eta Anizkoan, aitaxi-amaxiek bilobei supazterean bere istoriak nola kontatzen zizkieten azaltzen zuten. Arizkungoak Bozateko zikro-jatearen berri eman zuten; Oronozen 50 urtetik honat ezkondu eta ezkongabeen artean jokatzen duten futbol partida "zelairatu" zuten eta Iruritik laxoan jokatzeke erabiltzen duten 1898ko errebotte plaza agertu zuten. Elbeteko karrozak, gerra ondoan tabakoaren orde edozein belar erretzeko ona zela erakutsi zuten (hirugarren saria eskuratu zuten) eta Elizondoko Belatzak kuadrilak Balleko Etxeko gorapean paxakan nola aritzen ziren plazaratu zuten. Arraioz eta Lekarozko karrozek Aroztegiako proiektuaren kontrako erreibindikazioa egin zuten.

Aipatzekoa da, Balleko Etxean, Osasuna futbol taldeko ordezkaritza bat ere izan zela alkate eta zinegotziekin



ARGAZKIAK: JUAN MARI ONDIKOL ETA UTZITAKOIA

Elbeteko orga udaletxearen parean; Gartzaingoak lehenbiziko sariarekin eta Osasunakoak udal ordezkariarekin.

eta jokalariek sinatutako kamixeta bat ekarri zuten opari.

HERRI BAZKARIAN BERTAKO PRODUKTUA

Aurtengo Baztandarren Biltzarrek bertze bereizgarriak ere izan ditu. Herri bazkarian apustu berezia egin zuten menua bertako produktuekin osatzeko. Ingurumenarekiko eta jasangarritasunarekiko konpromezua ere indar-

tu dute aurtengo Baztandarren Biltzarrean.

ZOKKETA

Baztandarren Biltzarren antolaketan lagundu duten saltokietan gastatzeko 1.000 euroko saria ere zozketa zen eta 9.414 zenbakari egokitu zaiou. Sariduna agertzen ez bada, 9.396 eta 11.841 dira ordezeko zenbakiak. Bazkalondan ere giro bikaina izan zen.

Mármoles SOULE
HILETA ARTEA
T. 948 453 444 | M. 688 605 182
ARIZKUN

CARLOS GARAIKOETXEA ETXENIKE
abokatuak
Santiago, 59 2C · ELIZONDO
T. 948 581 468 M. 630 354 818

MENDI
ostatua
Santiago 25
948 580 313
ELIZONDO

OSPAKIZUNAK → ABUZTUAREN 7TIK 13RA IZANEN DIRA EKITALDIAK

Benito Lertxundiren kantaldiarekin hasiko dira Zigako San Lorentzo bestak

Hondar egunean, zikirojateaz gain haurren frontenis txapelketa jokatu da

TTIPI-TTAPA

Zigako San Lorentzo bestak abuztuaren 9tik 11ra ospatuko dituzte, baina borts egun horietako ospakizunen aitzinetik, abuztuaren 7an kontzertua eskainiko du Benito Lertxundik.

IGANDEA, ABUZTUAK 7

- 21:30 Benito Lertxundiren kantaldia.

ASTEARTEA, ABUZTUAK 9 BAZTAN-ZOPA EGUNA

- 20:00 txupinazoa, ezkil jotzea.
- 20:15 herriko trikitilariak herri itzulian eginen dute.
- 21:00 baztan zopak (txartela maiordomok ek salgai).
- 00:30-05:00 Agerralderekin dantzaldia.



UTZITAKO ARGAZKIAK

Zigako plaza inguruan izanen da animazioa, gaeuz nahiz egunez.

- 05:00 xinger jatea.

ASTEAZKENA, ABUZTUAK 10 SAN LORENTZO EGUNA

- 10:00 diana herriko trikitilariarekin.
- 11:00 meza nagusia.
- 12:00 luntxa plazan.
- 18:00 dantzariak.
- 20:00 Hauspolariek taldearekin dantzaldia. Ondotik, txalaparta eta joaldunak.
- 22:30 xinger jatea eliz gibelean.



ORTZEGUNA, ABUZTUAK 11 GAZTE EGUNA

- 10:00 herriko trikitilariak herrian barna.

- 11:00 pala txapelketa.
- 11:00 gazte gosaria soziedadean.

- 12:00 gazteak auzo eta baserrietako ibilbidean trikitilariarekin ibiliko dira.
- 14:00 herri bazkaria eta mus txapelketa.
- 20:00 Agerralderekin dantzaldia.
- 22:00 xinger jatea.
- 00:00 Agerralderekin dantzaldia.

ORTZIRALEA, ABUZTUAK 12

- 10:00 dianak herriko trikitilariarekin.
- 11:00 haur jokoak.
- 14:00 haur bazkaria.
- 17:00 puzgarriak.
- 19:00 txokolatada.
- 20:00 Frantziskorekin dantzaldia.
- 22:00 afaria.
- 00:30 Frantziskorekin dantzaldia.

LARUNBATA, ABUZTUAK 13 ZIKIRO JATEA

- 10:00 herriko trikitilariak herriko itzulian ibiliko dira.
- 11:30 haurren frontenis txapelketa.
- 14:00 zikirojatea.
- 20:00 dantzaldia.
- 21:00 xinger jatea eliz gibelean.
- 00:30 dantzaldia.

BENITO LERTXUNDI

kantaldia

ZIGAko Plazan | Abuztuak 7 | 21:30ean

Aitzinetik 15€ | Egunean bertan 18€ | 16 urtetik beheitikoek doan

Antolakuntza taldea ez da kargu egingo gerta daitezkeen ezbeharretaz ezta eguraldiak sortu ditzazken ondorioetaz ere.



BAZTAN

GIZARTEA → UDALAK ETA GUIAILUSTRADA ENPRESAK

Herriz herri itzuliskak proposatu dituzte

Oraingoz Elizondo eta Elbetekoak egin dituzte

TTIPI-TTAPA

Turismo-proiektu berri bat aurkeztu du Udalak, uztailaren 15ean emandako prentsaurrekoan. Proiektu horrek Baztango herri guztiak bultzatu nahi ditu turismo aldetik, eta baita Baztan bisitatzen duten pertsona guztiak herri osoa ezagutzeko aukera izatea ere.

Agerraldian aipatu zutenenez, «Baztan Nafarroako landa-turismoko erreferentzia da eta ho-

ri horrela jarraitzea nahi dugu, horregatik turismo hori zaintzea ezinbertzekoa da».

Landa-turismoa egin duten pertsonak gauza zehatz batzuk bilatzen dute, horien artean, opor egunak pasatzeko hautatzen duten lekuak ezagutu eta natura gozatzeko aukera izan. Nahiz eta helburu horiek lortzeko hainbat tresna erabili daitezkeen, «modu garbieretako bat da ibilbide baten bidez erakustea ikusi nahi duten guztia», Joseba Otondo alkatearen erranetan. «Hori horrela hondarreko urteetan gure bisitariek erraten zigutena biltzen ari-



ÚTZITAKO ARGAZKIA

Elizondon barna itzuliskak egiteko argitaratu den eskuorria.

tu gara eta konturatu gara gero eta jende gehiagok ibilbide mota zehatz batzuk eskatzen dituela: Herriak erakusten dituzten ibilbideak eta natura gozatzeko aukera ematen dituzten ibilbideak, gainera, horretaz gain, ibilbide laburrak, errazak eta ume txikiak dituzten familietara egokituak egon behar dutenak».

Eskaera hori oinarri hartuta sortu zen *Baztango herrietan itzuliskak* proiektu hau. Proiektu honek 15 ibilbide biltzen ditu, Herri bakoitzean ibilbide bat. Ibilbide horiek herrien

barreketan eramaten gaituzte eta herriko lehiagok ibilbide mota zehatz batzuk eskatzen dituela: Herriak erakusten dituzten ibilbideak eta natura gozatzeko aukera ematen dituzten ibilbideak, gainera, horretaz gain, ibilbide laburrak, errazak eta ume txikiak dituzten familietara egokituak egon behar dutenak».

Ibilbide horiek hainbat soportetan egonen dira, batetik herrietako plazetan egonen den panel batean, herri bakoitzeko panelean da-

gokion ibilbidea agertuko da; eta bertetik, Turismo Bulegoan esku- ra daitezken eskuorrietan. www.guiailustrada.com web gunean ere izanen da informazioa.

Idéia zen proiektua hastera bi herritan eta dauden zailtasunak ikusita, gainerako herrietan moldaketak egitea. Hori horrela aurten Elizondoko eta Elbeteko ibilbideak egin dira eta heldu den urtean gainerako herrietako ibilbideak egingen dira.

Balleko Etxeak *Guiailustrada* enpresaren laguntza izan du proiektua ateratzeko.

ETXEBIZITZEN SUSTAPENA ALMANDOZEN



Ezaugarriak:

- 101 m²ko etxabea lursailarekin
- 1º solairua, 69 m² eta 75 m²ko etxebizitzak
- 144 m²ko teilatupea
- Distribuzioa bezeroak aukeran

126.000€

SAROB ERAIKUNTZAK
 info@sarobe.eus
 www.sarobe.eus
 629 687 171
 mmstudio-k diseinatua
 www.mmstudio.info - 651 776 998

OSPAKIZUNAK → AGORRILAREN 6AN

Burdinaren Egunak bederatzigarren edizioa egingen du ekitaldiz beterik

Bazkalondoan Bankako Menditarrak ariko dira kantari

TTIPI-TTAPA

Burdinaren Eguna baderatzigarren edizioa agorrilaren 6an, larunbatean ospatuko da Urdazubian. Horretarako egitarau zabala prestatu dute.

Ohikoa denez, burdin minerala idi-gurdietan garraiatzen zeneko ibilbidea antzeztuko da. Izan ere, meatzeetatik Monasteriora eramaten zuten, eta abadeari ematen zitzaion, urrezko txanpon batzuen truke. Kultur Etxean foruei eta gamazadari buruzko hitzaldia ere izanen da.

Gainera artisautza merkatua, zikiroa, Bankako Menditarrak taldearen emanaldia eta sorpresa ugari....

Familia guztientzako aktibitate ugari izanen dira egun osoan. Artisautza azoka herriko plazan eta horrez gain umeentzako puzgarriak eta itsasontziak eta joko ugari umeentzat. Monasterioa, lezeak edo errota bisitatzeko aukera ere izanen dute bertaritzen direnek.

EGITARAUA

- 10:00etan Artisautza azoka herriko plazan. Horrez gain umeentzako puzgarriak eta itsasontziak eta joko ugari ttikientzako.
- 12:00etan burdin mineralaz kargatuak dauden idiek tiratutako or-



ARGAZKIA: JUAN MARI ONDIKOL

Ikaburuko lezearen eguna bigarren aldiz

Uztailaren 16an, Ikaburuko Lezearen egunaren bigarren edizioa ospatu zuten, familia guztiarentzako jarduera ugariekin. Bertan, estalagmita eta estalaktitaz betetako mundu batean murgildu ziren, antzinako pertsonai, kondaira eta kontrabandozko historiekin. Goizean Lezera bisitak ere antolatu zituzten Txalaparta erakustaldiarekin. Goyo Hualde, lezeko gidari eta arduradunak aipatu duenez, «350 pertsona sartu dira lezean, eta bertze hainbat kanpoan egin diren ekitaldietan gelditu dira, hauek ez baitziren ordaindu behar». Lezea zaintzeko, bisita horiek gehienez ere 25 laguneko taldetan egin zituzten eta bisitari guztiak txoratuak atera ziren ikusitakoarekin.

- gag helduko dira Monastegira, Olagizonek aztertuko dute, eta abadeak Plentziako benakeroei ordainduko die. Burdina urrezko txanponengatik trukatzeko ekitaldia
- 13:00etan Kultur Etxean hitzaldia izango da: Maria del Mar Larrazak *Fueros y Gamazada* hitzaldia eskainiko du.
- 14:30 Zikiro jate

- bazkari herrikoia.
- 16:00etan Bankako Menditarrak taldearen kantaldia.

Flamenko kontzertua

Agorrilaren 5ean, berriz, flamenko kontzertua izanen da Hermanos Sanchez & Nani Sanchez taldearen eskutik monasterioan 20:00etan. Lehenago-

tik, 18:00etan, Paco de Lucia gitarrajolearen bizia azaltzen duen *La búsqueda* filma eskainiko dute (7 euro). Kontzertua, aperitifa eta afa-riaren prezioa 35 eurokoa da eta txartelak Urdazubi, Sara eta Ainhoako Turismo Bulegoetan, 948 599070 telefonora deituz eta www.terreetcotebasques.com webgunean esku- ra daitezke.

ARMUA JATETXEA

T. 948 599 131
Zugarramurdiko errep. 3 km
URDAZUBI

TTIPI-TTAPA ALDIZKARIA
SARE SOZIALEAN
facebook
www.facebook.com/ttppi.eus

GRUPO TANATORIO TALDEA
IRACHE
MALDAERREKA S.L.
24 ORDUKO TELEFONOA
948581959 | 948637404
BERA (SAN JOSE) | BERA (ITURLANDETA)
DONEZTEBE (SAN PEDRO) | ELIZONDO (BAZTANDARRA)
ELIZONDO (BAZTAN) | LESAKA
TRASLADOAK IRUÑA, DONOSTIA
ETA IRUNGO OSPITALETIK EDOZEIN HERRIETARA
LOREAK, HILARRIAK, ESKELAK
ERRAUSKETAK ETA ZERBITZU OSAGARRIAK

JATETXEA-ERRETEGIA
MONTXO
OSTATUA-TABAKO-DENDA

Egunero irekia
09:00etatik
02:30era
Dantxarinearik
2 km.tara
PLATER KONBINATUAK · OGITARTEKOAK
MENUAK ENKARGUZ · PINTXOAK
ESPEZIALISTAK ARRAIN ETA TXULETOIAN
ANZAN-BORDA · URDAZUBI | 948 599 039
montxoblanco@gmail.com

SARA

KULTURA → HAINBAT EMANALDI AURREIKUSIAK DAUDE AGORRILEAN

Erromeria, kantaldi eta kontzertuz beterik dator uda sasoina

Abuztuaren 9,
10 eta 11n
Kalakan
taldeak
kontzertuak
eskainiko ditu
lezeetan eta
18an Benito
Lertxundik
kiroldegian

Joana GERENDIAIN

Uda dela eta herriko elkarteek erromeriak antolatzen dituzte plazan. Abuztuaren 6an Sarako Izarra errubi taldeak berea egingen du plazan. Egunean zehar animazioak izanen dira eta jateko aukera ere eguerditan eta gauean. Abuztuaren 13an Zazpiak bat dantza taldearen itzuli izanen da, arratsaldean dantza ikusgarri bat emanen dute, ondotik zintzur bustitze bat eta bukatzeko bertan afaltzeko aukera izanen da. Bi menu proposatuak dira, 10 euro edo 12 eurotan.

Abuztuaren 27an Sarako Izarra pilota elkar-teak bere besta egingen du, goizeko 11etan esku huska partida bat ikusten ahalko da eta arratsaldeko 5etan joko garbi partida bat. Eguerditan eta arratsanean jateko aukera izanen da.

Kantaldiak

Abuztuaren 4an, ostegunarekin, Donibane Lohitzuneko Goraki abesbatza mistoak kan-



ARTXIBOKO ARGAZKIAK

Kalakan taldea eta Maddi Oihenart. Agorrilean gurean izanen dira kantari.

taldi bat emanen du elizan gaueko 9:30ean (sartzea 10eurotan). Abuztuaren 11n, Ainhoako Atsulai abesbatza entzuten ahalko da betiere gaueko 9:30ean (sartzea 8 eurotan). Abuztuaren 18an gaueko 9etan, Benito Lertxundik kantaldi bat emanen du kiroldegian. Abuztuaren 23an, Sarako Saiberri taldeak eliza animatuko du bere kantuekin, sartzea 5 eurotan da eta gaueko 9etan hasiko da.

Kontzertuak

Abuztuaren 9, 10 eta 11n Kalakan taldeak kontzertuak emanen ditu lezeetan. Ortzirale gauean Xiberutik etorritako Maddi Oihenart eta Jeremi Garatekin baita ere Urepeleko Xedarineko ahizpak taldeekin arituko dira.

Larunbat gauean Duo l'incontro musika klasiko taldearekin eta igandean beraien musika Dobet Gnahore kantari bolikostarraren errit-

moekin nahasiko dute. Hiru gauetan kontzertuak 9:30ean hasiko dira, baina 7:30etik baso bat edateko eta taloak jateko aukera izanen da.

Selauru hustea eskolak antolatua

Abuztuaren 14an, igandearekin, Sarako eskola publikoak selauru huste bat antolatzen du plazan. Xehetasun gehiagorentzat 06 63 62 49 92 zenbakira deitu behar da.

KIROLA

3.000 euroko defizitarekin bukatu du urtea Urtxintxak esku-baloi taldeak

TTIPI-TTAPA

Sarako Urtxintxak eskubaloi taldeak urteko batzarra egin zuen uztail hasieran. Duela hogoi bat urte sortu zen taldea eta gaur egun adin ezberdineko neskek biltzen ditu. Stéphane Aguerre lehendakariak, Anais Gorosurreta, Mikela Elodie eta Gerard Garat idazkariak eta Christine Iribarren diruzainak osatzen dute zuzendaritza batzordea. Batzar jendetsuan aipatu zenez, 3.000 euroko defizitarekin bukatu dute sasoina. Batzuk lizentzia goratzearan alde egin bazuten ere, baina batzordearen ustez, dirua ateratzeko ekitaldi ezberdinak antolatu beharko liriteke: «Beraien alabek kirola egiten segi dezaten gurasoak mugitu beharko liriteke». Adin tikiagoetan bezala, helduen taldeak ere bi entrenatzaile izanen ditu datorren sasoinan: Cedric Sánchez eta Florian Guérin. Gaur egun 70 neskek dute lizentzia, baina kopuru hori handitzeko kanpaina egingen dute.

KIROLA → ETAPA EGIN DEZAN GUREAN

Frantziako Tourrerako hautagaitza aurkeztu du herriak

Franck DOLOSOR

Senpereko Herriko etxeak bere hautagaitza aurkeztu du Le Tour munduko txirrindularitza lasterketa ospetsuenak etapa bat egin dezan gure herrian. Aintziratik egin liteken abiatze hori 2017 edo 2018an gertatuko litzateke Pierre Marie Nousebaum auzapezaren arabera. Tourreko zuzendaritzak deliberatuko du orain noiz eta nola egin Lapurdiko etapa hori. Senpereko kirolzale batzuek talde bat osatu dute eta solasak aintzinatek dituzte jadanik Tourreko antolatzaileekin. 60.000 euroko inbertsioa egiteko prestatzen ari da Herriko Etxea, laguntzaile eta inguruetako erakunde publikoen laguntzare-


kin. Senpereko merkatariek pozik daude beren ustez jendetza ekarriko baitu Tourrak eta herria mundu osoan ezagutarazteko parade eskainiko baitu. Iaz, Zuberorako barna ibili zen itzuli famatua baina aspaldi du ez dela etaparik izan Euskal Herrian. 2003an Baionarat heldu ziren txirrindulariak eta 2006an Kanbotik abiatu. 1996an Iruñea eta Hendaia artean ibili ziren kirolariak Senpereko eremuetan barna ibiliz Dantxarinea eta Sara artean. Preseski, heldu den irailaren 2an alde hortan ibiliko da ere Vuelta, Bilbotik Urdazubirako etorriko delarik Espainiako lehiaketa handia. Hirurogoiko hamarkadan Senperetik pasaz jadanik Vuelta.



ARGAZKIAK: FRANCK DOLOSOR

Segurtasun gehiago autobus geltokia berrituta

Autobus geltokia berritzen ari dira osoki Gantxiki pilotalekuaren ondoan. Lanak agorri hondarreko bururatuko ditu Herriko Etxeak. Segurtasun gehiago eman nahi izan dute ikastola, eskola publikoa, jantegia eta haurtzaindegia inguruan, lan hauei esker harat hunit gutiago izan behar bailitzateke.



ARGAZKIAK: FRANCK DOLOSOR

Amotzeko Madalenak

Amotzeko bestak ederki iragan dira eta orain bestazaleek Ibarrungo Mikelien beha egon beharko dute. Anartean, uda osoan zer nahi animazio izanen da.



UTZITAKO ARGAZKIA

Senperra Iruñeko entzierroan

Manu Marquez Senperen bizi den argazkilariek Iruñeko entzierroan parte hartu du aurtan ere. Burasoak portugaldarrak izanki bertako ikurriñarekin buruan egin zuen lasterketa ospetsua «beldur haundiarekin». Uztailaren 10a igandea zenez jende aintz zegoen eta erorketa bat jasan zuen Manuk. Entzierroan azken aldikoz parte hartu duela hitz eman du Marquezek.

BURKAITZEA
JATETXEA - ERRETEGIA

Eguneko menua,
Plater konbinatuak,
Karta, Bazkariak,
Sandwichak...

Taldeentzako bazkariak

Berezitasunak:
Olagarroa, rodabailoa eta txuleta

Alkerdi auzoa, Zugarramurdiko errepidea | URDAZUBI | T. 948 599 296
restaurantburkaitzea@gmail.com



Oroigarriak egiten ditugu

ttipi-ttapa

Koskontako bidea, 07-1.
31770 LESAKA
Tel.: 948635458
whatsapp: 744 484361
info@ttipi.eus

*Rekordatorioak
egiten ditugu*

ttipi-ttapa
Koskontako Bidea, 7-1
LESAKA | 948635458



**Eustakio
LUJANBIO ZUBELDIA**
Goizueta hil zen, 2016ko uztailaren 12an

*Umorez eta alaitasunez
egoten ginen elkarrekin,
oroitzapen ahaztez in horiek
beti geldituko dira gurekin.*

ETXEKOAK



Maite AROZARENA BENGOTXEA
Amaiurren, 2014ko uztailaren 27an
II. URTEMUGA

*Ama, zure irrifar eder eta polita
gogoratu,
gure ondoan momenturo zaudela
sentituz,
zure ilusio eta ametsen
bidea jarraituz,
aitzina segituko dugu beti zu
bihotzez maitatuz.*

BERE ALDEKO MEZAK:
Urdazubin uztailaren 30ean
Amiurren uztailaren 31n



Delfina ZUBIETA † 2015/07/27
Felix AGIRRE † 1988/07/28

*Gure bihotzetan
zaituztegu beti.*

ZURE SEME-ALABAK ETA BILOBAK



**Ana
MENDIGUTXIA ZOZAIA**
Lesakan hil zen, 2016ko uztailaren 15ean
X. URTEMUGA

*Beti irrifarrea zenuen lagunmin
gauza denen gainetik aitzinera ekin
bizitzari helduaz gogo guziekin
indar hau utzi duzu betiko gurekin
maite izan zaitugun zure lagunekin.*

ZURE BETIKO KUADRILA



**Xabier Rekarte Rekarte
"Kaxtel"**

*Ttikitan amaren
zapatetan nola,
hala sartu zenituen
gure botetan oinak.
Bide zahar eta
mendi berrietan,
elkarrekin segituko
dugu beti.*



Martzutzak
ZURE OSPAKIZUNETARAKO
BEHAR DUZUN GUZTIA

- ♥ Soinekoak
- ♥ Ilerako apaingarriak
- ♥ Poltsak
- ♥ Bisuteria
- ...

Bidasoa, 12 • BERA
948 631 425

EZKONTZAK

David Featherstone eta **Anabel Ama-ya Higgin Aranguren**, Singapurrekoak Lesakan, uztailaren 2an.

Iñigo Agirre Lizarazu eta **Naiara Ansa Salaberria**, Donostiakoak Lesakan uztailaren 15ean.

Jose Miguel Tameron Lopez eta **Shaila Ruiz Ramirez**, Orense eta Lesakakoa, uztailaren 16an.

Juan Carlos Santiso Garcia eta **Olatz Juanena Saez**, Doneztebekoak, uztailaren 9an.

Aritz Zubiri Gamio eta **Maialen Apezetxea Larrarte**, Goizuetakoak, uztailaren 9an.

Norbaitek bere datuak sortze eta ezkontzen atalean agertzea nahi badu, 948 635458 telefonora deitu beharko du.

SORTZEAK

Izaro Irigoien Madariaga, Lesakakoa, uztailaren 11n.

Mara Alexandra Genua Ruiz, Etxalarkoa, uztailaren 7an.

Anderson Cala Valdés, Sarakoa, ekainaren 24an


Andde Jean Bareyre, Sarakoa, uztailaren 4an.

Norbaitek bere datuak sortze eta ezkontzen atalean agertzea nahi badu, 948 635458 telefonora deitu beharko du.

Rekordatorioak egiten ditugu



Nahi duzun argazki eta testuarekin prestatua



Koskontako b., 7 | LESAKA | 948 635 458

HERIOTZAK

Juana Josefa Agesta Ariztegi, Donamarikoa, uztailaren 8an, 85 urte.

Araceli Gallego Santana, Berakoa, uztailaren 7an, 90 urte.

Martin Irazoki Zubieta, Sunbillakoa, uztailaren 11n, 73 urte.

Xabier Rekarte Rekarte Kaxtel, Erratzukoa, uztailaren 11n, 39 urte.

Damaso Duhalde Erramuzpe, Erratzukoa, uztailaren 11n, 82 urte.

Jose Eustaquio Lujanbio Zubeldia, Goizuetakoa, uztailaren 12an, 71 urte.

Maria Lourdes Eskudero Zubiri, Goizuetakoa, uztailaren 17an, 81 urte.

Michel Vallet, Sarakoa, uztailaren 9an, 78 urte.




XABIER REKARTE REKARTE
"XABI KAXTEL"

Hodeiei gerritik hartuz haizearekin dantza egizu bukaerarik gabeko plaza urdin eder honetan.

ZURE LAGUNAK BIHOTZEZ

XABIER REKARTE REKARTE
XABI KAXTEL

Herriagatik, herriarendako herria herriagotuz. Urrundu arren, ez egon herriminez, herria zure baitan dago ZU gure baitan.



ERRATZUKO HERRIA

XABIER REKARTE REKARTE
"XABI KAXTEL"

Adiskide bat bazen...
...mendi hegaletan gora oroitzapen den gerora ihesetan joan hintzana

ALTSASUKO LAGUNAK



HERRI KIROLAK → NAFARROAKO TXAPELKETAK

Txapel ugari lortu dituzte eskualdeko kirolariek sanferminetan

Itxaso Onsalo aresoarrak eta Leire Astiasaran zizurkildarrak Euskadiko errekorra hobetu dute arpanean

TTIPI-TTAPA

Urtero bezala, Iruñeko sanferminak aprobetxatu dituzte Nafarroako hainbat herri kirol txapel jokatzeko. Horietatik aunitz, eskualde etorri dira.

Hasteko, uztailaren 8an, Nafarroako emakumezkoen arpana txapelketa jokatu zen. Itxaso Onsalo aresoarra eta Leire Astiasaran zizurkildarra izan ziren irabazle eta gainera, Euskadiko marka berria jarri zuten. 45 ontzako enborrari 10 epai egiteko 03:54.34 behar izan zuten. Elsoko Ainhoa eta Ana Iraizoz izan ziren bigarren eta Nerea Sorondo eta Amaia Garcia beratarrak hirugarren.

Nafarroako I. mailako arpana txapelketan, Iraizozko Josetxo eta Iñaki Barberena izan ziren irabazleak (07:31.48). Bigarren Julen Kañameres eta Mikel Eugi (07:50.73), hirugarren Oier eta Ima-

noI Kañameres (08:50.43) eta laugarren Xabier Urrutia eta Daniel Saldias arraioztarrak (09:25.63).

Uztailaren 9an, Nafarroako harri-jasotze txapelketan Josetxo Urrutia leitzarrak jantzi zuen txapel beltza (17 altxaldi eman zizkion zilindroari, kubikoari 10 eta bolari 11, 4.380 kilodenera). Bigarrena Albaro Zugarrondo izan zen (3.425 kilo) eta hirugarrena Jon Irañeta (2.762,5 kilo).

Nafarroako emakumezkoen txinga txapelketan Xanta Sousa lesakarrak argi erakutsi zuen bertze behin ere bere nagusitasuna, 33 plaza eta laurden osatuta. Bigarrena Eider Lopez iruindarra izan zen (11 plaza $\frac{3}{4}$ 5,80 m), hirugarrena Eurne Gonzalez (10 plaza) eta laugarrena Leire Ugarte beratarra (6 plaza $\frac{1}{4}$ 1,10 m).

Nafarroako lasto altxatze txapelketan amaiurtarren arteko lehia izan zen eta Iñigo Goienetxe gailendu zitzaion Lander Landiribari (15 altxaldi lehenak, 12 bigarrenak).

Uztailaren 10ean, Nafarroako orga joko txapelketan Albaro Zugarrondok 2 itzuli eta 2,80m egin zituen. Simon Thomas Callaghan



UTZITAKO ARGAZKIA

Leire Astiasaran eta Itxaso Onsalo lanean. Euskadiko errekorra egin zuten Iruñean.

izan zen bigarren (2 itzuli 1,64 m), Alejandro Fernandez hirugarren (1 itzuli $\frac{3}{4}$) eta Josetxo Urrutia leitzarrak min hartu zuen eta ez zuen itzuli bat ere osatzerik izan.

Nafarroako bikotekako aizkora txapelketan, hiru bikotek parte hartu zuten eta Iker Vicente eta Julen Kañameres izan ziren 6 kanardiko eta sei 60 ontzakoak moztzen azkarrak (24:31). Bigarrena Donato Larretxea eta Ruben Saralegi izan ziren (25:00) eta hirugarrenak Jon Rekondo eta Juan Jose Lopez (27:39).

Uztailaren 11n, Nafarroako kadete mailako arpana txapelketan, bikoteek etzanda jarritako metroko enborrari hamar epai eman behar zizkieten. Baztango Basaburuko Antton Irigoien eta Iker Aleman erraz nagusitu ziren, lana 4 minutu eta 54 segundotan eginda. Bigarrenak Araxesko Josu Elizalde eta Joanes Rekalde izan ziren (5:30); hirugarrenak Basaburuko Pablo Dorregarai eta Imanol Etulain (5:54); laugarrenak Basaburuko Unai Aleman eta Xabier Mitxelena (6:30).

INGUDE ALTXATZEN, MAIKA ARIZTEGI ETA JOSETXO URRUTIA

Uztailaren 12an, ingude altxatzen, emakumezko nahiz emakumezkoen txapelak eskualdera ekarri zituzten. Iturengo Maika Ariztegi erraz nagusitu zen, 92 altxaldirekin. Iruñeko Eider Lopez bigarren izan zen (80 altxaldi), Iruñeko Eurne Gonzalez hirugarren (77 altxaldi) eta Beintza-Labaiengo Iruñe Izkue laugarren (72 altxaldi).

Gizonezkoetan lehia estuagoa izan zen, altxaldi bakarragatik nagusitu zen Josetxo Urrutia. 84 altxaldi egin zituen leitzarrak eta 83 Berriozarko Imanol Martinek. Gibelerago gelditu ziren Iruñeko Jon Irañeta (75 altxaldi), Iruñeko Albaro Zugarrondo (73 altxaldi), Iruñeko Alejandro Fernandez (72 altxaldi) eta Guadajaratik etorritako Angel Albarran (65 altxaldi).

Azken egunean jokatzen izan zen Nafarroako gi-

zonekoen txinga eramate txapelketa. Migel Angel Sukuntza leitzarra jaun eta jabe izan zen, 50na kiloko txingekin 22 plaza eta 0,70 metro egin zituen.

Daniel Saldias arraioztarra bigarren izan zen (8 plaza eta 2,40 metro), Iruñeko Jon Irañeta hirugarren (6 plaza eta 1,16 metro) eta Iruñeko Albaro Zugarrondo laugarren (4 plaza eta laurden eta 5,55 metro).

SEGAN JON KANFLANKA LEITZARRA TXAPELDUN

Jon Kanflanka leitzarrak bigarren aldiz lortu du Nafarroako sega txapelketa irabazteaz. Iruñean belardirik ez, uztailaren 10ean Azkaraten jokatu zen norgehiagokan Mikel Berekoetxea gorritarra izan zuten arerio. Jon Kanflankak 1.584 kilo belar ebaki zituen 45 minutuz eta Mikel Berekoetxeak 1.297 kilo eta erdi, beraz, 287 kilo inguruko aldea aterazio txapelkunak.

Ba al zenekien

Nafarroako herriz herri txapelketako lehen jardunaldia uztailaren 25ean jokatu dela Elizondon; hilaren 31n Beran jokatuko da bigarrena; abuztuaren 19an Burlatan hirugarrena eta abuztuaren 20an Ororbian laugarrena.

PILOTA → SANFERMINETAKO TXAPELKETETAN BIKAIN IBILI DIRA ESKUALDEKO PILOTARIAK

Eskuz, erremontez nahiz palaz txapelak lortu dituzte sanferminetan

Olaizola II.a, Etxeberria III.a eta Ibargarai txapeldun suertatu dira Iruñeko torneoetan

TTIPI-TTAPA

Urrizak eta Joxe Etxeberria doneztebarrak irabazi dute Iruñeko sanferminetako erremonte txapelketa. Uztailaren 3an Euskalen jokatuako finalean erraz irabazi zieten Zerberio II.a eta Barrenetxeari, 40-24.

11-10ekoa bitarte berdindua joan zen partida, baina Urriza jokoa sartu zenean jauna eta jabe izan zen. 18-10 eta 31-23koaren ondotik, azkenean lortu zuten al-



UTZITAKO ARGAZKIA

Urriza eta Joxe Etxeberria III.a txapeldun erremontean.

derik handiena txapeldunek, 40-24.

Urriza bikain aritu bazen, Joxe Etxeberria III.a doneztebarrak ere lan ederra egin zuen, Barrenetxeari ongi eustez gain, gailendu ere

egin baizitzaion pilotetean. Gainera, 5 tanto egin zituen sakez eta bertze hainbertze pilotetean. Hiru pilota bakarrik galdu zituen.

Mikel Sanz eta Xabi Ibargarai erratzuarrak

irabazi zuten uztailaren 10ean sanferminetako bosgarren pala txapelketa, Iruñeko Labrit pilotalekuan. 3-1 irabazi zieten finalean Necol eta Ibai Perez-i.

Lehenbiziko jokoa gorri-

ek irabazi zuten, 10-5, batez ere Xabi Ibargarai Erratzuko atzelariak egindako lan bikainagatik. Bigarren jokoa orekatuagoa izan zen eta azkenean urdinek lortu zuten, 9-10, berdinketa ezarri markagailuan. Baina hurrengo bi jokoa berriz ere gorriek irabazi zituzten, 10-6 eta 10-5 eta txapela Sanz eta Ibargarairentzat izan zen.

Esku pilotan, azkenik, binakako sanferminetako txapelketan Aimar Olaizola goizueta rra eta Albisu jauna eta jabe izan ziren. Uztailaren 14ko finalean 14-22 irabazi zieten Irribarria eta Abel Barriola leitzarri (0-12 irabazten hasi ondotik), baina aurreko bi partidetan, areriok ez ziren 10 tantotara ailegatu.

HERRI KIROLAK → ABUZTUAREN 14KO AZKEN SAIORAKO KANPORAKETA ERE SANFERMINETAN JOKATU ZEN

Nafarroako hirugarren mailako aizkora txapelketaren finala Ezkurran jokatu da

Bortz aizkolari izanen dira lehian, lau Malerrekakoak

TTIPI-TTAPA

Nafarroako hirugarren mailako aizkora txapelketako kanporaketa jokatu zen uztailaren 11 Iruñeko sanferminetan. 13 aizkolari aritu ziren Ezkurran abuztuaren

14an jokatu den finaleko bortz txartelaketako baten bila. Hain zuzen, bortzetik lau Malerrekako aizkolariak izanen dira.

Zubietako Patxi Mingedia izan zen kanporaketan azkarrena. Bi kanaerdikoak mozteko 5 minutu eta 16 segundo behar izan zituen. Beintza-Labaiengo Jesus Etxeberria izan zen bigarren (5:19), Beintza-

Labaiengo Jon Telletxea hirugarren (5:32), Uhartte Arakilgo Iker Gorriti laugarren (5:53) eta Beintza-Labaiengo Jacinto Etxekonanea bosgarren (6:07). Hauek izanen dira finalean.

Joan den urtean bai, baina aurten herrian jokatu den finalera sartzea lortu ez duena Ezkurako Moises Gogorza izan da, seigarren izan baitzen (6:41). Ar-

bizuko Joan Flores zazpigarren (6:53), Arostegegiko Xuban Kañamares zortzigarren (8:34), Arbizuko Iosu Agirre bederatzigarren (8:53), Uharteko Koldo Garcia hamargarren (13:00), Irurritako Marc Duch hamekagarren (14:05), Anotzeko Eneko Pagola hamabigarren (16:56) eta Etxarri Aranazko Iosu Jaka hamahirugarren (19:32) izan ziren.

Datozen txapelketei dagokienez, Nafarroako bigarren mailako aizkora txapelketa, berriz, abuztuaren 15ean jokatu dute Etxalarren; Nafarroako gizonetzkoen koxkor biltze txapelketa abuztuaren 16an Arantzán eta emakumeena 19an Burlatan eta Euskal Herriko gizonetzkoen arpana txapelketaren kanporaketa abuztuaren 28an Gorritin.

uztailak 28 - abuztuak 11

Informazioa bidaltzeko: info@ttipi.eus edo 948 63 54 58

Kontzertuak



SARA | 2016.08.09-10-11

Hiru egunez Kalakan taldea eta gehiago entzungai lezeetan

Abuztuaren 9an Kalakan taldekoak Maddi Oihenart eta Jeremi Garaterekin ariko dira, baita Xendarineko ahizpak ere. 10ean Duo l'Incontrorekin ariko dira Kalakaneok eta 11n Dobet Gnahorekin.

Mendi irteerak



LEITZA | 2016.07.30

Euskal Selektzioaren aldeko mendi martxa Leitzatik abiatuko da

Euskal Selektzioa Martxa, herri borondatez ofizialtasuna! Ilopean eginen den mendi martxa Leitza eta Urduña (Bizkaia) batuko ditu. Zortzi egunez, egunero 7-8 orduko txangoa eginen dute mendizaleek.

Kontzertuak



ZIGA-SARA | 2016.08.07-2016.08.18

Benito Lertxundik Zigan eta Saran kontzertuak eskainiko ditu

Ekainean Donezteben izan zen Orioko kantari handia eta abuztuan Zigara eta Sarara etortzeko gonbidatu dute. Abuztuaren 7an 21:30ean Zigako plazan ariko da eta 18an Sarako kirolegian, 21:00etan.

Erakusketak

BORTZIRIAK

Tren txikitoren mendeurrenako erakusketa

Uztailaren 31ra arte Lesakako Kultur Etxean.

Abuztuaren 5etik 12ra

Etxalarko Kultur Etxean.

SARA

Eresoinkaren 80. urteurrenaren harira

Uztailaren 31ra arte Lur Berri Gelan.

ELIZONDO

Tomas Sobrinoren erakusketa

Abuztuaren 28ra arte Arizkunenean.

ERRATZU

Diana Iniestaren margoak

Uztailaren 30etik abuztuaren 31ra labaderoan.

ARIZKUN

Xabier Soubeleten lanak

Abuztuaren 31ra arte Sasternea etxean.

Ikastaroak

DONEZTEBE

EGA ikastaroa

Abuztuaren 8tik irailaren 2ra klase presentzialak edo

online autoikaskuntza. Izen-ematea abuztuaren 3ra arte: 948 451555 edo *malerreka@ikauskaltegiak.eus*.

LESAKA

Haurren garuneko errehabilitazioa eta ureko terapiak

Abuztuaren 29tik irailaren 2ra igerilekuan. Profesional, senide eta boluntarioentzat (haurrekin lan egiten dutenek lehentasuna). NUPEk, Guztiok Guraso Taldeak, Lesakako Osasun Etxeak eta Lesakako Udalak antolatua.

ETXALAR

Xaboia egiteko tailerra

Uztailaren 30ean Etxalarko Azokaren baitan. 11:00etatik 13:00etara. Dohainik.

Lehiaketak

ESKUALDEA

Udako argazki lehiaketa

Irailaren 11ra arte aurkez daitezke *erran.eus* atarian. TTIPI-TTAPAK hartzen duen eremuan sortu edo bizi eta 16 urtetik goitikoentzat da. Argazkiak eskualdean atera-takoak izan behar dute.

ESKUALDEA

Argazki, margo eta marrazketa lehiaketa Arkupeak-eko bazkideentzat

Irailaren 30era arte aurkez daitezke. Lehiaketako oinarriak *arkupeak.com*-en.

Ospakizunak

LEITZA

Umeen Eguna**Abuztuaren 7an.**

BERA

Erraldoien Topaketa**Uztailaren 31n** 11:00etatik

PROPOSAMENA

URDAZUBI

Bederatzigarren aldiz Burdinaren Eguna

Bertze urte batez, Burdinaren Eguna antolatu dute Urdazubin, garai bateko burdin mineralaren etorrera oroitzuz. Abuztuaren 6an izanen da eta 10:00etatik 14:00etara artisautez azoka eta haurrendako jokoak izanen dira. 12:00etan ailegatuko dira burdin mineralaz kargatutako idiak. 13:00etan hitzaldia eskainiko du Maria del Mar Larrazak eta 14:30ean zikiro jatea eginen dute. 16:00etan Bankako Menditarrek emanaldia eskainiko dute.



aitzinerera herriko karriketan Elizondo, Doneztebe, Sunbilla, Etxalar, Igantzi, Lesaka eta Berako buruhaundiak.

SARA

Errugbi taldearen erromeria

Abuztuaren 6an egun osoan.

Zazpiak Bat dantza taldearen eguna

Abuztuaren 13an.

Pilota Elkartearen Eguna

Abuztuaren 27an.

URDAZUBI

Burdinaren Eguna

Abuztuaren 6an 10:00etatik aitzinerera.

Dantzak

BERA

Korrontzi Dantzan

Uztailaren 30ean Gure Txokoa Dantza Taldea eta Korrontzi Taldea.

Bestak

BERA

Herriko bestak

Abuztuaren 2tik 6ra.

GAZTELU

Herriko bestak

Abuztuaren 3tik 7ra.

BEINTZA-LABAIEN

Herriko bestak

Abuztuaren 5etik 8ra.

ZIGA

Herriko bestak

Abuztuaren 7tik 13ra.

SUNBILLA

Herriko bestak

Abuztuaren 10etik 14ra.

LEITZA

Herriko Pestak

Abuztuaren 10etik 15era.
Abuztuaren 6an reparto eguna.

Nire aukera



Jon TELLETXEA JUANENEA
Beintza-Labaiengo alkatea

«Aizkorarako herrian dugun afizioa ikusita, bestetan ere ezin du falta»

Beintza-Labaienen sortu, bizi eta azken urteetan herriko aginte-makila eskutan du Jonek «aurreko agintaldi erdian sartu ginen kudeaketa batzorde bezala, orduan udalik ez zelako osatu. Eta azken agintaldi honetan alkate lanetan ari naiz». Herriarengatik izena du ordezkatzeko duen taldeak eta izena izanari zor, herriaren mesedetan lan egitea dute helburu «nahikoa lan izaten da taldea osatzeko jendea ez delako animatzen. Gainera, aldiari aldiari jende gutxiago gara herrian eta horrek egoera zaildu egiten du». Ardura hori norbaitek hartu behar zuela jakinik eman zuen pausoa eta alkate denetik eguneko orduak motz gelditzen zaizkio «kanpoan aritzen

«Herri ttikia izan arren, herri handietan egiten diren antzeko gestioak egin behar izaten dira hemen ere».

naiz lanean fabrika batean eta hango orduak betetakoan, herriko kontuekin hasi behar izaten dut... ordu asko eskatzen ditu». Ez da ahaztu behar «herri ttikia izan arren, herri handietan egiten diren antzeko gestioak egin behar izaten direla hemen ere». Ez dago bakarrik, ordea, «jendea laguntzeko prest izaten da» eta herriko bestak antolatzeko orduan ere «denen artean pixkanaka-pixkanaka egiten dugu. Aurrez pixka bat antolatu, kontratazioak egin, aizkolariak bilatu, herri bazkaria prestatu... Denen beharra izaten da!». Bestazalea ote den galdetuta sobera ez dela esan arren, herri bazkariak solasean hasitakoan nabari zaio gustuko duela «herri gehiena biltzen da eta giro polita egoten da». Horretaz gain, egur kolperik ez da falta izaten Beintza-Labaienen «afizio handia dago herrian aizkorarako; lagun artean eta herrian aritzen gara». Musikari buruz solasean arituta, dena da beretzat baleko «egun batean talde bat izaten da eta besteetan Joxe Angel soinularia etortzen da. Nik ez dut alde gehiegirik nabari giroan. Bietan ere gustura, lagunartean onean egonez gero».

Kontzertuak

SARA

Goraki abesbatzaren emanaldia

Abuztuaren 4an 21:30ean elizan.

Kalakan taldea eta gehiago lezean

Abuztuaren 9an Kalakan, Maddi Oihenart, Jeremi Garate eta Xendarineko ahizpak, 21:30ean.

Abuztuaren 10ean Kalakan eta Duo l'incontro, 21:30ean.

Abuztuaren 11n Kalakan eta Dobet Gnahore, 21:30ean.

Atsulai abesbatza

Abuztuaren 11n 21:30ean elizan.

Benito Lertxundiren kantaldia

Abuztuaren 18an 21:00etan kiroldegian.

Saiberri taldearen kontzertua

Abuztuaren 23an 21:00etan elizan.

SUNBILLA

WE eta Ride The Abelux

Uztailaren 30ean 19:00etan Ariztigain kanpian.

ZIGA

Benito Lertxundiren kantaldia

Abuztuaren 7an 21:30ean plazan.

Azokak

SENPERE

Azoka larunbat goizero

Urte osoan elizako plazan.

SARA

Aukera ugari

Astelehenero 09:00etan plazan artisauro eta merkataria eta ortziralero 16:30ean frontoian bertako ekoizleena.

Selauru hustea

Abuztuaren 14an eskola publikoaren eskutik.

Mendi ateraldiak

LEITZA

Euskal Selektzioaren aldeko mendi martxaren hasiera

Uztailaren 30ean.

ETXALAR

Zanpingorri taldea

Uztailaren 31n denboraldi bukaerako ibilaldia.

BERA

III. Berako Gau krosa

Abuztuaren 1ean 22:00etan.

ETXEBIZITZAK

salgai

ORONoz-MUGAIRI. Pisuak salgai, 90 m²ko azalerakoa. Etxe mobilizatua, berogailua, igogailua eta trastelekuarekin. 3 logela, egongela, sukaldia eta bainugela ditu. 90.000 euro negoziagarriak. Eta 60 m²ko bajera ere salgai 15.000 eurotan. ☎948 585036.

ANZABAL

INMOBILIARIA

BAZTAN, BIDASOA, ULTZAMA eta IPARRALDEAN

- Pisuak, apartamentuak, partzelak, baserriak, bordak, lokal komertzialak eta nabeak salgai.

IPARRALDE eta BIDASOA alderdian
- Eskaintzagarriak base-riak, bordak eta lurak behar ditugu.

URDAZUBI
- Etxe berri bat salgai, mobilizatua. 2000 m²ko lursailarekin.

DONEZTEBE
- **Aukera:** 102 m²ko pisua salgai. Egoera oso onean dago. 3 logela, jangela, egongela, 2 komun, sukaldia mobilizatua eta 17 m²ko trastelekuak.

Tel. 948 580 804
anzabal@anzabal.com

ELIZONDO. Akullegi karrikan 2 logelako pisua salgai. Prezioa: 59.900 euro. ☎646 774117.

ELIZONDO. 90 m²ko pisua salgai. 1. solairua. Hall, 2 logela, 2 bainugela, egongela eta sukaldia ederrak eta ekipatua. Balkoia eta 15 m²ko sabaia. Kafekazioa berritua. Aukeran gara-jea. Paularena zonaldean. ☎609 004983.

**MERKATU TTIKIA**

948 63 54 58

info@ttipi.eus edo erran.eus

SAIL HONETAN **IRAGARKIA** JARTZEKO **10€** ORDAINDU BEHAR DA
ARGAZKIAREKIN JARRI NAHI IZANEZ GERO **12€**
IRAGARKI BAKOITZEKO **GEHIENEZ 25 HITZ** ONARTUKO DIRA

TTIPI-TTAPA aldizkariaren 2 zenbakitan eta
INTERNETen hilabete batez agertuko da

Ordainketak Rural Kutzako 3008 0080 56 0703304329 kontuan

TTIPI-TTAPAK ez du bere gain hartzen argitaratuak diren iragarkien ondorioz
sortzen ahal diren operazioen erantzukizunik

ETXEBIZITZAK

errentan emateko

ELIZONDO. 70 m²ko pisua errentan emateko. Herriaren erdigunean. 2 logela, egongela, sukaldia, jangela, komuna, trastelekuak eta garajea. Aukera ona. Etxebizitzak 6 urte ditu. Dena kanpora begira. ☎629 212439.

LESAKA. Logelak errentan emateko, as-telehenetik ortziralera, irailetik aurrera. Bakoi-tza bere komunarekin, telebistarekin eta sukaldia erabiltzeko aukerarekin. ☎948 637862 / 678 855056.

ERRATZU. 95 m²ko etxebizitza errentan emateko. 2. solairua. 3 logela, 2 balkoi eder. Bista garbiak eta eguzkitsua. Berogailua eta gasa. ☎659 786952.

ETXEBIZITZAK

errentan hartzeko

BERA. Pisuak errentan hartu nahi dugun 2 neska arduratsu gara, mobilizatua eta egoera onean. Biak lanean. 400 euro. ☎627 086071 / 663 420685 (deitu 20:00 eta-tik aitzinera).

ETXEBIZITZAK


konpartitzeko

ELIZONDO eta INGU-RUAN partekatze-ko pisu bila. ☎631 868455.

GARAJEAK/LOKALAK

salgai

DONEZTEBE. Lokala salgai, 68 m². Leitzako



errepidea, 29. Prezio interesgarria. ☎948 456010.

ZERBITZUAK

klase partikularrak

NARBARTE. Ingeleseko klaseak eskaintzen dira, betiere ahazko el-karrizketa libre eta naturala erabilita, ahoske-rra eta oro har ingeles-maila hobetzeko. ☎628 796955.

Euskara azterketa ofi-zialak prestatzeko es-perimentzia duen **euska-ra irakasle bat** behar da, heldu bati klase partikularrak emateko. ☎637 042401.

LANA

eskaintzak

On-line lanean aritze-ko, zerbitzariak, komer-tzialak, autonomoak edo bertzelako langileak be-har dira. ☎699 382673.

LANA

eskariak

Komertzioetan depen-dientia bezala lan bila. Jendaurrean lan egiteko prest eta langilea. Fran-tses maila altua. ☎606 552350.

IGANTZI. La Villa jate-tean zerbitzaria behar da, barran eta mahaia-kerbitzatzeko esperientzia duena. Sukaldia lagun-tzailea ere bai. ☎634 592788.

Uztaila eta abuztuan ari-tzeko langilea behar du-te Baztanen; **ostatuko lanetan laguntzeko.** Pertsona heldua nahia-go eta kotxearekin. ☎948 453470 eta wha-tsappa: 663 621982.

Udan egunero **ontziak garbitzen** aritzeko lan-gilea behar duite Erra-tzuko kanpineko osta-tuan. ☎663 621982.

Senar-emazte euskal-duna behar da **adine-ko bat zaintzeko** Gi-puzkoako herri batean, eta bertan bizitzeko. On-gi ordaindua. ☎666 264116.

Kotxe eta mekanika arloan dakien pertso-na bat behar da. Infor-mazio gehiagorako dei-tu 948 580898ra edo bi-dali curriculum-a *info@biokbat.com*-era.

ELIZONDO. Juli osta-tuan pertsona bat be-har da mahaia-kerbitzatu eta barran aritzeko eta sukaldia dakiena. ☎647 650248 / 948 452462.

BASERRIA

DATU ITURRIA: **NAFARROAKO GOBERNUA**
(uztailaren 8tik 15era bitarteko prezioak)

ZERRIKIA

Zerrikumea
(19 kilo): 37 €

Zerri gizena
1,300 € kiloak.

Zerramak:
0,660 € Kg/bizirik.

BEHIKIA

Aretze gizenak:
Idixkoak: €/kg. Kanal
Extra 4,16

1.koa 3,93
2.koa 3,75

Urruxak: €/kg. Kanal
Extra 4,24
1.koa 3,97
2.koa 3,80

Oharra: Prezioak 180-220 Kg. kanalean pisatzen du-ten aretzeenak dira.

Aretze tikiak
(15 egun ingurukoak):

Aretze mestizoak:
urruxak 140,00
idixkoak 228,00

Aretze nabarrak:
urruxak 120,00
idixkoak 180,00

Zaldikoak: €/k
Sortuberriak: 3,03/3,13
Zaldi-behorrak: 1,84/2,04

Bildotsak: €/k
6-8 kilokoak: 5,40/6,40
8-10 kilokoak: 4,80/5,20

Mutil bat lan bila. DBH eta administrari teknika-ri ikasketekin. Hainbat alorretan esperientziaduna: komertzioetan dependiente bezala eta fabrikari operario bezala. Bereziki interesa dependiente bezala lan egiteko, baina beste esparrutan ere bai. ☎646 307234. Adinekoak zaintzen eta mendiko lanetan **esperientziadun mutila** lan bila. ☎644 471128.

Adinekoak zaintzen **esperientziadun neska** lan bila Elizondo eta inguruan. Interesatua interna moduan lan egiteko adinekoak edota haurrak zaintzen. ☎644 890668.

ANIMALIAK
oparitzeko

2 hilabeteko zakurkumea oparitzeko, ardi zakurra eta labrador arrazen nahasketa. ☎948 510224.

ANIMALIAK
salgai

Border Collie zakurrak salgai. Ama eta aita lanean. ☎616 109050.



MOTORRAK
salgai

Toyota Hilux 3.0 D4D kabina bikoitza Vx 4x4 09 salgai, 80.000 km, 2009koa, kajakotapahomologatua, ez iraultzeko barrak, beti garajejan egona. Egoera ezinhobean. 22.000 €. ☎639 901273.



DENETARIK
salgai

Haritz egurra salgai, Donezteben. 40 euro tonan. ☎686 314036.



ORONOZ. Egurra xehetua salgai. Pagoa eta haritza. Etxera eramantzen da. ☎676 242520.




Altzairuzko sei fregadera salgai, haundiak, 1,5 metro luze, forma borobila. ☎948 585036.

Egoera onean dagoen **egongelako altzaria** salgai 500 eurotan. ☎636 113226.



IGANTZI. Logela salgai: bi ohatze (90 cm), koltxoiak eta somierrak, koltxak, kojina, almoadak, idazmahai, aulkia, liburuetarako apalategia, mesanotxea, hiru apal, lanpara. Pinuzko



altzariak, berdez tindatuak. ☎661 767398.

Automóviles IMOBA
Okasioko ibilgailuen salerosketa
FORD auto berriak eta Km 0

VW TOURAN 2013
EXTRA GUZTIAK

FORD C-MAX 2012
BERRIA BEZALA

VW GOLF 2012
AUKERA 12.500 €

Irun-Iruña errepidea
N-121-A 63.km **BERA**
948 630 750 | 648 231 361
www.automovilesimoba.com

Liderrak gure eskualdean

eta baita azterketa egiterakoan **CIESek Nafarroa Garaiko mendialdean hartu duen 111 udalerrien eremuan ere**



Ttipi-Ttapa 28.000 irakurle

DIARIO DE NAVARRA	14.000 irakurle
DIARIO DE NOTICIAS	12.000 irakurle
GARA	3.000 irakurle
EL PAÍS	3.000 irakurle
MARCA	2.000 irakurle
EL MUNDO	2.000 irakurle
BERRIA	1.000 irakurle
BESTE BATZUK	8.000 irakurle



SEXUAREN ARABERA

GIZONAK	%55,00
EMAKUMEAK	%45,00

ADINAREN ARABERA

14-24 URTE	%13,40
25-34 URTE	%10,40
35-44 URTE	%27,60
45-54 URTE	%12,70
55-64 URTE	%17,80
+64 URTE	%18,20

IKASKETA MAILAREN ARABERA

IKASKETARIK GABE	%27,60
OINARRIZKO BATXILERGOA	%17,80
GOI MAILAKO BATXILERGOA	%26,40
UNIBERTSITATEA	%28,30

Datu iturria: CIES, 2016ko lehenengo neurketa

urtebetetzeak

Argazki soilak: 5€; bikoitza: 10€


Ordaintzeko: 1) Bulegoan, dirutan; 2) Hegoaldetik postaz, 0,45€ko 12 edo 24 seilu. 3) Iparraldetik postaz, 5 edo 10 €ko txekoa; 4) erran.eus bitartez



Sunbillako **IBAI PETRIRENA GOROSTERRAZUK** abuztuaren 9an 6 urte beteko ditu. Aunitz urtez familia guztiaren partetik eta bereziki Iraide-Garaine lehengusinak eta nola ez amaren partetik. Gozatu zure urtebetetze egunaz. Berendu-afari eder batekin ospatuko dugu. Muxuak.



Zorionak **ATAUTXI!** Uztailaren 28an urteak beteko dituzte. Zorionak eta muxu aunitz familia osoaren partetik, bereziki Leiane, Naikari eta Xabat biloben partetik. Afari goxoa prestatu!



NAHIA MARINELARENA ELIZALDEK uztailaren 25ean 5 urte bete ditu. Zorionak! Zubieta-ko familia eta bereziki Maren, Janire, Aimar, Maddi, Enaitz eta Naroa.



Ezkurako **IKER** eta **ANDER GOROSTIAGA MUTUBERRRIAK** 4 eta 2 urte beteko dituzte uztailaren 28an eta abuztuaren 26an. Zorionak Doneztebeko familia guztiaren partetik. Muxu handi bana.



Arantzako **AROA** eta **EKAITZ MIKELARENA TABERNAK** eta beraien attatto **INAKIK** uztailaren 19, 20 eta 26an 3, 1 eta 36 urte bete zituzten. Aunitz urtez eta muxu potolo bana Sunbillako eta Arantzako familia guztiaren partetik, baina bereziki amaxoren partetik.




AUZA IPARRAGIRRE ITURZAETAK urteak beteko ditu uztailaren 31n. Aunitz urtez eta muxu haundi-haundia etxeko guztien partetik!!!



XUBAN UGALDE PIKABEA arantzarrak urtea beteko du uztailaren 29an. Aunitz urtez monono, eta muxu potolo bat familia guztiaren partetik.



Zigako **AINARA** eta bere amaxok urteak beteko dituzte uztailaren 21 eta 28an. Elkarrekin pasatzen duzuen lehen urtebetetze eguna! Muxu bat Berroetatik!



Iturengo **IZEI** eta **MALEN BEREAU MINDEGIAK** abuztuaren 19an eta abuztuaren 6an 6 eta 3 urte beteko dituzte. Muxu haundi bana ama, atxa eta familia guztiaren partetik!



AIMAR GARTXITOREN uztailaren 12an 6 urte bete ditu. Zorionak eta muxu handi bat aitaxo, amaxo eta Hegoiren partetik.



Berako **AIALA SAN JUAN AROTZENAK** 10 urte beteko ditu abuztuaren 12an. Zorionak eta muxu haundi bat familia guztiaren partetik.



NIEVES eta **MERTXE** ama-alabek urteak beteko dituzte abuztuaren 5ean eta 7an. Zorionak familiaren partetik eta ongi pasa eguna. Ederki ospatuko dugu!



BEÑATEK abuztuaren 7an 12 urte egingen ditu eta **UNAX** eta **ENAITZ** abuztuaren 19an 8 urte beteko dituzte. Zorionak Lesakako familiaren partetik.



Uztailak 31 iritsi da, Iritsi da Uztailak 31, Pozez betetako eguna, Ospa dezagun laguna! Arantzako **IKER ALZURI LUJANBIK** 4 urte beteko ditu. Muxu potolo bat hor doakizu familiako denan partetik!



Sunbillako **BEATRIZ MANTEROLA PETRIRENAK** uztailaren 29an urteak beteko ditu. Aunitz urtez! Eta bizkotxo goxoa prestatu gure Behobia etxean. Urdazubitik Olaizola familia eta zure biloba Pabloren partetik.



Zorionak Iturengo **AIMAR, OIER, BEÑAT** eta **HILARIARI** abuztuaren 2, 5, 9 eta 15ean urteak betetzen dituztelako. Besarkada haundi bat etxekoan baina bereziki Iñaki eta Iratiren partetik. Muxu haundi-haundi bana.



NAHIA MARINELARENA ELIZALDEK uztailaren 25ean urteak bete ditu. Zorionak bihotza eta muxu haundi bat Maren, aita eta amaxoren partetik.



Zorionak Iturengo **BEÑAT PERURENARI** abuztuaren 9an 4 urte egingen dituelako. Muxu haundi bat Iturengo eta Aizoaingo familiaren partetik, baina bereziki lehengusinak diren Janire eta Iraiaren partetik. Besarkada potolo-potolo bat.



Aunitz urtez **AITAXI XANTIO!** Muxu haundi bat Eñaut, Aritz eta Beñaten partetik.

erran

Mendialdeko Albistek
TTIPI-TTAPA aldizkaria eta XORROXIN irratia
elkarrekin eskuko telefonoan eta tabletan

e ERABILI ETA ZABALDU EDUKIAK

- 🏠 Albistek
- 📅 Agenda
- 👤 Komunitatea
- 📺 Xorroxin online
- 🕒 Eguraldia
- 📊 Merkatu Itikia
- 🔔 Urtebetetzeak
- 📺 Bideoak
- 🖼️ Galeria

Urteko lehenengo elurtea

DESKARGATU APLIKAZIOA DOAN

- ERRAN.EUS web bertsioarekin denbora errealean sinkronizatua
- ZU ZEU KAZETARI: nahi dituzun informazio eta argazkiak bidaltzeko aukera ematen dizu
- PERTSONALIZATZEKO AUKERA nahi den gai eta herrien araberrako bilaketak egiteko aukerarekin

ETA JAIETAN... ZER?



JAIETAN ERRESPETUZ BIZI GARA

Uda 2016

ZOZKETAK!

GONBIDAPENAK
EUREKA! ZIENTZIA MUSEOA
www.eurekamuseoa.es



KAMISETA BAT
ONDDO TA PUNTO
www.onddotapunto.com



2 SARRERA
DONOSTIAKO AQUARIUMA
www.aquariumss.com



GONBIDAPENAK
CAMELOT PARK
www.camelotpark.es



Txingudi
Merkataritza-gunea
IRUN

SARRERAK
ZUGARRAMURDIKO LEZEAK
www.turismozugarramurdi.com



ttipi txartelarekin
beti irabazten da!

DESKONTUAK, ZOZKETAK...
TTIPI-TTAPA ALDIZKARIA
MUSUTRUK
- %80ko DESGRABAZIOA
ERRENTA AITORPENEAN
Eskatu zurea: 948 63 54 58

Informazio gehiago:
TTIPI-TTAPA
Koskontako bidea, 7 LESAKA
T 948 63 54 58 | F. 948 63 54 57
info@ttipi.eus | erran.eus

ttipi txartela

Miren IPARRAGIRRE HUALDE
72673111-B
04/2016
Zk. 181972

ttipi-ttapa

Esne Beltza - CDa
Jose Mari Magirena Aristia | ZIGA
Baztan Abentura Park - 2 tiket
Belen Bera Elizalde | SALDIAS
Irrisarri Land - 2 sarrera
Elena Iribarren Larraide | URDAZUBI
Eureka! Zientzia Museoa - 2 sarrera
Fermin Arrasate Lakoizketa | ELIZONDO
Buatxabal | Kamiseta bat
Bittor Jauregi Aleman | AMAIUR
Donostiako Aquariuma - 2 sarrera
Venancia Mihura Arizaleta | IRUNA
Tarttalo argitaletxea - Liburu bat
Saioa Sagastibeltza Ganboa | LEITZA
Tarttalo argitaletxea - Liburu bat
Arantxa Mutuberria Ibarra | ETXAURI
Tarttalo argitaletxea - Liburu bat
Jose Luis Arrieta Zubieta | SUNBILLA
Tarttalo argitaletxea - Liburu bat
Kattalin Paul Juanikorena | DONAMARIA

666.
aleko
irabazleak